

# hiruka

196. zenbakia  
2023ko ekaina

XXIII. UMORE AZOKA

# Kaleko arte eszenikoen geralekua



46  
Nazioarteko  
Jaialdia  
Festival  
Internacional

# GETXO JAZZ


Ekainak 28 - Uztailak 2  
28 junio - 2 julio  
2023




SARRIEN/ENTRADAS  
Marketari  
Fono Kultur Etxea  
Kloubark sarrak/Red Kloubark

[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

Antolatzaileak / Organizadores



Babesleak / Patrocinadores



Laguntzaileak / Colaboradores



## MUXIKE BARRI 21:00

28 <sup>OR</sup> <sub>VE</sub>

Vincent Meisner  
Trio (Alemania)

### Jazzmeia Horn

29 <sup>OG</sup> <sub>UE</sub>

Victor Carrascosa  
Quartet (Suiza)

### Kurt Elling

30 <sup>OR</sup> <sub>VE</sub>

Giulio Ottanelli  
Quartet (Frantzia)

### Marc Ribot Ceramic Dog

01 <sup>UR</sup> <sub>SA</sub>

Jarecki Jazz  
Octet (Polonia)

### Al Di Meola Acoustic Trio

02 <sup>IG</sup> <sub>DOM</sub>

Talde lehiaketaren irabazleak  
Ganador del concurso de grupos

### Dave Holland New Quartet

PLAZA  
ESTACIÓN  
DE ALGORTA  
19:00

28 <sup>AZ</sup> <sub>ME</sub>

Olatz García-Ergüin  
Sextet  
Featuring Miguel Salvador

29 <sup>OG</sup> <sub>UE</sub>

Muriel Grossmann  
Quartet (Baleares)

30 <sup>OR</sup> <sub>VE</sub>

Triskel Trio  
(Galizia)

01 <sup>UR</sup> <sub>SA</sub>

Matthias Van Den  
Brande Trio (Belgica)

02 <sup>IG</sup> <sub>DOM</sub>

Michele Bonifati  
Emong (Italia)

ALGORTAKO  
GELTOKIA  
PLAZA  
13:00

01 <sup>UR</sup> <sub>SA</sub>

Proyecto Jazz  
For Kids (Zaragoza)

02 <sup>IG</sup> <sub>DOM</sub>

Euskadiko Ikasleen  
Jazz Orkestra

Gainers: **Iruña Brass Band** eta jam sessions-ek The Piper's Irish Pub-en **Organizing** taldearekin  
Además: **Iruña Brass Band** y jam sessions en The Piper's Irish Pub con **Organizing**

# Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Uribe Kostako izadia
- 10 Herriz herri
- 18 Hirudika: Umore Azoka
- 24 Jon Garcia Ormaza, GetxoZUrt!
- 28 Agenda
- 29 Mundukatuak
- 30 Lehen/Orain eta Uribitakora
- 31 Musikhariak
- 32 Erandioztarren euskara liburuak
- 33 Araitz Lasa dantzaria
- 35 Usategi
- 36 Alberto Romillo, kick boxing borrokalaria
- 37 Eunate Etxebarria, judo-borrokalaria
- 38 Horoskopoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Faceguk
- 43 Zozketak



# hiruka

**HIRUKA kooperatiba elkarte**

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

**e-posta:** hiruka@hiruka.eus

**Posta-kutxa:** 171

**Telefonoa:** 944 911 337

**Publizitatea:** Maria Gorostiola

**Erredakzioa:** Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Nahia Martinez Gondra eta Ander Zarraga

**Diseinua:** Artefakto

**Kudeaketa eta administrazioa:** Ziortza Merino

**Zerbaki honetako kolaboratzaileak:** Hodei Rodriguez, Zelai Nikolas, Iñaki Larretxi Gallastegi, Asier Barruetabeña Rivallo, Joseba Santxo, Iratxe Marta eta Iñigo Astiz

**Filmazioa eta Inprimategia:** Gertu Inprimategia

**Lege-gordailua:** BI-2022-2014

**ISSN:** 2386-98-95

**Ale-kopurua:** 5.000

**CC-BY-SA**

## Erakunde laguntzaileak



# Bizkaia

*foru aldundia  
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua.



## #M28: Erabakitze aro berria

**ZELAI NIKOLAS EZKURDIA** Gure Esku



**E**san eta esan genbiltzan. Erabakitze prest gaude eta libre erabakiko dugu harresiak eta hormak maite ez ditugulako. #M28ko emaitzek Euskal Herrian gobernatze ARO BERRIA zabaldu dute. Politika egiteko molde berriak eskatzen ditugu, XXI. mendeko erronka kolosalei arduratsu eta elkar entzunez gobernatzea, herritarrak erdigunera ekarrita.

Argi hitz egin dugu. Bai betikoaz nazkatuta etxean geratu diren milaka herritar, bai hautetsontzietara hurbildu ginenok. Gobernatze modu irekiak, gardenagoak eta hurbilagoak nahi ditugu. Demokrazian sakontzea eskatu diegu alderdiei, eta ez beldurra elikatzea eta lokatzetan sartzea. Elkarri entzuteko dei egin diegu eta gehiago baztertzailak albo batera uzteko. Demokrazian hazitako belaunaldia gara eta beste era batera jardutea eskatzen diegu. Lan handia dugu egiteko, apaltasunez, pazientziaz, baina determinazioz.

Belaunaldi bati etxera joateko eskatu zaiola esango nuke eta hura ordezkatzera datozeinei beste era batera jokatzeko. Orain arteko politika egiteko moduari erretiroa hartzeko unea heldu zaio. Herritarrok ez dugu beldurrez bizi nahi. Gardentasunez, erantzukizunez eta ausardiarekin agintzeko moldeak eskatzen ditugu, herri honen etorkizuna gure esku izatea nahi dugu eta.

## Anfibioak

**HODEI RODRIGUEZ ARRUTIA** Sukar Horia



**G**izakiok genetikoki hobeto prestatuta gaude bat-bateko arriskuei erantzuteko urrunekoei baino. Fenomeno hori adierazteko igel egosiaren metafora erabiltzen da askotan. Igel bat irakiten dagoen urez beteriko lapiko batera botaz gero, hau ihes egiten saiatuko da, baina, zer gertatuko litzateke igela ur epeletan sartu eta hau apurka-apurka berotuko bagenu ura irakiten jarri arte? Bada, metaforak dio, igela lasai-lasai geratuko litzatekeela lapikoan, tenperatura igoera txikiak igerrri gabe, bertan hil arte.

Honek azaltzen du, hein batean, zelan den posible bizi dugun larrialdi klimatiko garaian autobide berriak, portuen handipenak, turismo zifra errekorak eta abarrak ospatzea. Hirigintzaren alorrean ere aplika dezakegu fenomeno bera: zein arin ahazten ditugun porlanak apurka-apurka itotako lurrak eta zein errez normalizatzen dugun hiria etengabe handitzea biztanleria behera doan bitartean.

Baina, badirudi anfibio soinuak plan urbanistiko batek igel egosiaren metaforari buelta eman diola, kezka eta beldurra piztuz herritarrengan, 3.000 pertsona kalera ateraz eta EAJ eta PSEk Getxoko Udaltzatzen zuten gehiengo desagerraraziz. Agian baten bat damututa egongo da arinegi berotu izanaz lapikoa.

Puntua eta kontrapuntua **Hitz egin dezagun suizidioaren inguruan**

# Nola lagundu?



*Luze zaizkionari  
mende ta segundu,  
ilun zaizkionari  
kanpo, barne mundu...  
Esaten zaio izan ez  
nahita errudun gu:  
«Eskatu laguntza. Ez  
bakandu, urrundu».  
Baina ba al dakigu  
ba nola lagundu?*

**JONE  
URIA  
ALBIZURI**  
Getxo/Algorta

*Animo, bizkarrean  
toke ta abarrak,  
intentzio oneko  
laguntza utsalak,  
ez dituzte hobetzen  
bizitza kaxkarrak.  
Baztertu baliteke,  
baztertu ojalak,  
ta gure egin ditzagun  
banku sukursalak!*

**ARITZ  
LANDEJA  
TERCEÑO**  
Getxo



Lova Lois Abeslaria eta poeta

# «Artistaren figura beharrezkoa da gizartearen garapenerako»



**Bere poesietako hitzak musikan irauliz mundua aldatu gura duen abeslaria da Lova Lois astrabuduarra. Bakarlaria ez ezik, Esne Beltza taldeko abeslaria da ere.**

TESTUA: ANDER ZARRAGA • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

**M**usikak jendearengan eragiteko duen ahalmena baliatuta, Lola Guerricaechevarria (Astrabudua, 1999) edo Lova Lois izen artistikoa duen abeslariak kontu sozialak edo maitasuna bezalako gaiak jorratzen ditu bere abestietan. «Poesia idazten hasi nintzen mundua aldatzeko desiraz eta, gitarra jotzen hastean, konturatu nintzen musika jende askoz gehiagok kontsumitzen zuela poesia baino».

Abeslari erandioztarra duela urte bat inguru hasi zen «instrumentuekin jolasten» eta horrela rapa kantatzen hasi zela dio. Hala ere, aldeztu aurretik, poesia-ibilbide oparoa lortu du: «Publiko baten aurrean aurkeztu nuen lehenengo gauza poesia izan zen, Bilboko *Poetry Slam* lehiaketan, 18

urte nituela». Loisek txapelketa hori irabazi ere egin zuen, eta horri esker Estatuko finalisten artean kokatu zen. Hala ere, berarentzako saririk garrantzitsuena izan zen konturatzeko hitzek duten «sendatzeko ahalmena eta artisten figura beharrezkoa dela gizartearen garapenerako».

Bere abestietan munduko arazoei, maitasunari edo bere burua maitatzeko ahaleginen inguruan berba egiten du. Dioenez, bere abestietan hurbiletik ezagutzen dituen injustiziak ere lantzen ditu, hala nola arrazakeria, homofobia, matxismoa eta desberdintasun sozialak. Gainera, ez dago ados gazteak konprometituta ez daudela dioten horiekaz; izan ere, bere aburuz, «oro har, gazteak gero eta konpromiso gehiago hartzen ari dira arazo sozialei aurre egiteko».

Gaur egun, astrabuduarrek rap musikaren bitartez azalartzen ditu bere hitzak eta, aldi berean, Esne Beltza taldeko abeslaria ere bada. Dioenez, oso pozik dago Xabi Solanoren taldeak beragan jarritako konfiantzagatik, «baita ematen didaten askatasunagatik nire letrak beren kantetan abesteko ere». Aurreratu duenez, besteak beste, udan bere auzoko jaietan arituko da kantatzen. ◀



# Geure izadia etxetik lagundu

Argazkia: Paisaia kultural  
bioanitzaren adibidea da hau,  
Getxoko Andra Mari auzoan, eta  
inspirazio iturri moduan uler  
daiteke gune berdeak diseinatzeko:  
adin eta espezie ezberdinetako  
landare autoktonoak agertzen dira,  
sastreak, belardiak, egur hila...





**Geure osasuna eta garapena ekosistema produktibo eta osasuntsuen guztiz menpekoak dira. Zorionez, izadiaren egoera kaxkarrari aurre egin ahal diogu guztiok. Negatibitatea alde batera utzita. Ziurrenik, orain arte entzun ez duzuen moduan: erraz, gure etxetik. Uribe Kostan, izugarritzko aukera dugu izadia laguntzeko.**

TESTUAK ETA ARGAZKIAK: **IÑAKI LARRETXI GALLASTEGI** ▶

**E**z du inor ustekabez harrapatuko biodibertsitatea eta haren zerbitzu ekosistemikoak gainbeheran daudela esateak. Gainbehera horren erantzule nagusienetarikoak habitat galera, kutsadura, gainuztiaketa eta espezie inbaditzaileak dira. Gune berdeak izadiaren kontra kudeatu beharrean, honen alde eginez, mehatxu hauek nahikotxo murriztu ditzakegu.

Uribe Kostako edozein txokotik paseatuz gero, gune berdeak nahiko ugariak dira. Dirudiena dirudiela, artifizialekiak dira: belarra larregi moztzen da soropilak sortuz, erabiltzen diren landare gehienak exotikoak dira, ez dira maiz landare mota edo espezie ezberdinak nahasten, hesi asko erabiltzen dira... Beraz, Uribe Kostan gune berdeak ugariak izan arren, gehienak ez daude krisi-ekologikoari aurre egiteko diseinatuta. Zorionez, halako joerak erraz alda ditzakegu, bai izadiari zein geuri mesede handia eginez.

Hortaz, zer dago geure esku gune berdeak berpizteko? Izadia kopiatu, ahalik eta txoko gehien sortu bizidun ezberdinentzako. Gainera, geure etxe, herri eta hiri izaditik at ez daudela gogoratu behar dugu! Hona hemen proposamenak.

**BERTOKO LANDAREAK LANDATU.** Landareak polit-politak izateko munduko beste puntakoak behar ez dutela izan zin dagizuet! Izan ere, landare autoktono asko ederrak dira, eta lorategian landatzeko bikainak. Gainera, badira inguruan bertoko landareetan bereizitako haztegiak. Hemengo landareak bertoko izakiekin milaka urte koeboluzionatzen daramatzate. Hau da, elkarrekintza gehiago sor dezakete beste izakiekin (polinizatzaile gehiago erakarriz, fruitu elikagarriagoak ekoiztuz txorientzako, mikorrika sistema konplexuagoa eratuz...). Aldiz, atzerriko landare gehienek espezie oso gutxi faboratzen dituzte, ia plastikozkoak balira bezala dihardute. Are gehiago, inbaditzaileak bihurtzeko arriskuaz gain, bestelako animaliak eta izurriteak haiekin garraiatzea ekiditea ia ezinezkoa da. Azkenik, bertoko landareak lekuko baldintzei moldatuta, ez dute ez ongarririk ez ureztaketarik behar, eta inausketa bikain jasaten dute.





Gure inguruan topa daitezkeen landareen adibideetako batzuk. Beheko QR-a jarraituz, landare hauen izenak topatuko dituzu.

**BELARRA GUTXIAGOTAN ETA GUTXIAGO MOZTU.** Utz ezazu belarra pixka bat hazten; zenbat lore garatzen diren harrizko zaitu! Gainera, sega-makinan altuera handiena erabil ezazu — emaitza asko aldatu barik, animaliengan duen inpaktu handiena saihesten da—. Noski, ez da beharrezkoa lorategi osoa horrela kudeatzea: adibidez, belar luzea zeharkatuz belar motzeko bideak egin daitezke. Horrela, belarra hazten uztea erabaki kontzientea dela nabarmentzen da. Hori guztia gutxi balitz, kutsadura eta denbora aurreztu eta zarata murriztuko dugu.

**ZOMORROENTZAKO TXOKOAK SORTU.** Lorategiko txoko batean harriak metatu, tamaina ezberdinetako egur hila utzi, orbela bildu... Urte batetik bestera hildako loreak, adartxoak eta zurtoinak ez kentzea garrantzitsua da. Askotan zomorro txikitxoek bertan pasatzen dute negua eta erle-bakartientzat habia egiteko leku aproposa izan daiteke.

**PRODUKTUAK BOTATZEARI ETA GEHIEGI ARGITZEARI UTZI.** Lorategi batek ez luke ongari,



QR kodea eskaneatuz gero, erreportaje osoa online irakurtzeko aukera izango duzu.

pestizida ezta halakorik beharko. Are gutxiago, bertoko landareak era heterogeneo batean landatuz gero. Argiztapen artifizialak sitsak (polinizatzaileak) bezalako gaueko izakiak eragotzi ditzake ondorio hilgarriekin. Gainera, eguneko izakiak gauez esnatu eta estresatu ditzake. Argiztapena murriztuz hori guztia eta kutsadura murriztuko genuke, diru nahikotxo aurreztuz argi-fakturari.

**PUTZU BAT EGIN.** Gune berdeari ur iturri bat gehitzeak izugarriko hobekuntzak dakartza. Handia izatea hobe den arren, tamainak ez du axola —loreontzi baten platerarekin nahiko da—. Txoriek bainatzeko eta edateko erabiliko dute; sorgin-orratzak —beste intsektuen ehiztari guztiz kaltebakoak— bezalako intsektuek azkar kolonizatuko dute eta, egoerarik onenean, uhandreek, apoek eta igelek baita ere.

**KATUA ETXE BARRUAN.** Katuek konpainia ederra eskaintzen dute. Era berean, oso ugariak dira eta inpaktu handia dute izadiarengan:



milioika animalia ehizatzen dituzte urtero. Katua izatekotan, etxe barruan, mesedez.

Uribe Kostan lorategi pribatuak ugariak dira baina gehien-gehienetan ez dute garatu dezaketen jasate-ahalmen biologikoa aurkezten. Aurreko urratsak jarraituta, lorategiaren jasate-ahalmen biologikoa, zenbat ale, espezie eta prozesu sartzen diren handituko da. Horrela, lorategiaren konplexutasuna handituz, onura asko lor ditzakegu: lurzoru emankorren garapena, biodibertsitate galeraren etetea... Gainera, frogatu denez, gunen naturalagoak onuragarriak dira geure osasunarentzako.

Era berean, gunen berde hauek osatutako sarea izugarri baliagarria izan daiteke animaliek eta landareek lurraldea errazago zeharkatu. Ondorioz, izakien mugimendu horri esker, klima aldaketaren aurrean ekosistemak erresilienteagoak bihurtuko lirateke.

Bestalde, esaterako, urbanizazio- edo industria-proiektu berri bat proposatzen denean zeinak nekazal- edo izadi-gune bat guztiz eraldatuko duena, hausnarketa txiki bat burura etor dakiguke: bizi naizen lekua zelakoa zen orain dela zenbait hamarkada? Zer ote zegoen lan edo ikasten dudaren eraikinaren azpian? Eraikinak dituzten gunen guztiak lehen nekazal- edo izadi-guneak ziren. Ondorioz, geure esku dago orain «urbano» ikusten ditugun gunen horietan berriz ere izadia barneratzea, geure eta izadiaren onurarako. Urbano eta bioaniztasunaren kontzeptuak guztiz bateragarriak dira, noski. Arazo horri Oinarri Aldakorraren Sindromea deritzote adituek. Norberak txikitatik ezagutzen duena hartzen du oinarri gisa, gero eta ingurune kaltetuagoa onartuz. Bestalde, aipatutako proiektua guztiz beharrezkoa baltz, bioaniztasuna mantendu edo emendatu beharko luke, bioaniztasunaren babesa garrantzitsua parte baita.

**LABURBILDUZ.** Izadia hobetzeko eta, ondorioz, geure egoera hobetzeko, dugun aukerarik hoberena izadia imitatzea da. Izadia zein esker onekoa den ikusiko duzue. Leku pixka bat ematea besterik ez du behar. Horregatik, ahalik eta txoko gehien sortu behar ditugu gunen berdeetan, geure etxeko leiho, terraza edo lorategian ere bertoko landareak erabiliz: zuhaitz handi, zuhaixkak, sastrakak, landare txiki, belar luze, belar motza, gunen eguzkitsuak eta ilunpekoak, ura... Guztion esku dago krisi-ekologikoari buruz kontzientziaztea eta ikastea, gerora, mezua hedatzeko eta geure ordezkariari hemen azaldutako neurriak edo antzekoak eskatzea. Guztion artean bizirik eta bertoko espeziez beteta dagoen Uribe Kosta bat sor dezakegu: izadiarentzako, geuretzako eta datozenentzako! ◀



Belarra gutxiago mozteak bertoko landareen edertasuna agerian uzten du.

**ZERRENDA HONETAKO LANDARE GUZTIAK, BELARRAK ETA IGOKARIAK KENDUTA, URIBE KOSTATIK GERTU DAUDEN BERTOKO LANDARETAN BEREIZITAKO HAZTEGIETAN LOR DAITEZKE. BELARRAK ETA IGOKARIAK ERRAZ LOR DAITEZKE HAZI EDO ALDAXKAK JASOZ ETA BELARRA GUTXIAGOTAN MOZTUZ.**

### Zuhaitzak.

**Aretxa, artea eta ametza** *Quercus robur*, *Q. ilex* eta *Q. pyrenaica*, **astigarra** *Acer campestre*, **zume zuria** *Salix alba*, **urkia** *Betula celtiberica*...

### Zuhaixka handiak.

**Elorri beltza** *Prunus spinosa*, **elorri zuria** *Crataegus monogyna*, **sahatsa** *Salix atrocinerea*, **basaerramua** *Euonymus europaeus*, **zuhandorra** *Cornus sanguinea*, **binorria** *Ligustrum vulgare*, **gurbitzia** *Arbutus unedo*, **txorbeltza** *Rhamnus alaternus*, **ereinetza** *Laurus nobilis*, **gorostia** *Ilex aquifolium*, **gaukarra eta andura** *Viburnum opulus* eta *V. lantana*...

### Zuhaixka txikia.

**Erratza** *Ruscus aculeatus*, **estropa** *Cistus salviifolius*, **ainarrak eta txilarrak** *Erica cinerea*, *E. vagans*, *Daboecia cantabrica*, *Calluna vulgaris*, **orkatxa** *Hypericum androsaemum*...

### Zuhaixka txiki-txikia.

*Helianthemum nummularium*...

### Belarrak.

**Asun borta** *Lamium maculatum*, **zaingorria** *Geranium robertianum*...

### Igokariak.

**Atxaparrak** *Lonicera periclymenum* edo *L. etrusca*, **aihenzuria** *Clematis vitalba*, **huntza** *Hedera hibernica*, **arkakaratsa** *Rosa canina*, **apomahatsa** *Tamus communis*...



**Getxo** Gaylesbotrans zinema

## Zinegoak jaialdiak geldialdiak egingo ditu aurten ere Getxon

Zinegoak gaylesbotrans zinema jaialdia-  
ren 20. edizio honetako egitaraua da-  
torren barikuan, hilak 16, hasiko da  
Getxon, Raul Barreraren *Arnasa* eus-  
karazko film laburraren proiektioagaz. Egun  
berean, sexologia eta genero berdintasuneko  
profesionalen eskutik, "Guztiok" tailerra egin-  
go dute Itzubaltzeta/Romoko Gaztelekuan. Ho-  
rrez gain, Getxo Elkartegian (Areeta), *Munduko  
familiarik onenak* izeneko ipuin kontaketa eta  
euskarazko musika saioa ere egingo dela au-  
rreikusi dute arduradunek. Proiektioa eta tai-  
lerra 11 eta 17 urte bitarteko gazteentzat izan-  
go dira, eta alde aurretik izena eman beharko  
da 635 706 526 telefonora deituta; ipuin-kon-  
talaria, aldiz, 5 eta 11 urte bitarteko gazteei  
zuzenduta egingo da, eta 688 812 886 tele-  
fonoan izena eman beharko da. Bi ekitaldiak  
18:00etan eta euskaraz izango dira.

Proiektio eta tailer bera egingo dute hurren-  
go astean, barikuan ere, hilaren 23an, ordu be-  
rean eta euskaraz ere, oraingo honetan Algor-  
tako Gaztelekuan (izen-emateak 688 840 356  
telefonoan). Gainera, 19:00etan, Romo Kultur  
Etxeak Sébastien Lifshitzen *Casa Susanna* do-  
kumentala hartuko du, ingelesezko jatorrizko  
bertsioan, gaztelaniazko azpitoluakaz.

Jarduerek aurrera egingo dute domekan,  
hilak 25, Ines Bermejo eta Julen Nafarrete ge-  
txoztarren "Gu ere bagara" proiektua oinarri  
hartuta *Gure Garaian* antzerki lanagaz, RKEN,  
18:30ean, euskaraz eta gaztelaniaz, amamen  
eta aititeen istorioak ikusarazteko asmoz, ho-  
mosexuala, bisexuala, transexuala... izatea le-  
gez kanpokoa zen garai batean. Azkenik, irai-  
laren 13an, Susy Shock-en saioa izango da. ◀

**Getxo** 2021eko abendutik erorita

## Lau hilabete beharko dituzte Usategiko pasealekua berritzeko

**Luizi baten ondorioz kaltetutako pasealekua birmoldatzeko eta parkea eusteko lanak abiatu ditu Udalak, maiatzean horiek esleitu ondoren, 392.000 euroren truke.**



Ibilbidearen zati bat hondatu zen 2021eko abenduan, lur-jausi baten ondorioz.

Usategi parkeko pasealekua birmoldatzeko eta parkea-  
ri eusteko obrarako proiektua esleitu zuten joan den  
maiatzean, 392.000 euroan (BEZ barne). Hala, Getxoko Udalak iragarri duenez, beharrok ekainaren 5eko astean abiatu zituzten eta, aurreikuspenen arabera, lau hilabeteko epea izango dute obrek. Ibilbidearen zati bat hondatu zen 2021eko abenduan, lur-jausi baten ondorioz; ordutik, zati hori itxita

egon da. Pasealeku-tarte berriak 83 metroko luzera izango du. Parkeko plataformaren eta bidearen artean, luizi-gunea dagoen tokian (lehenago beheko pasealekua), hormigoi armatuzko hormatxo egingo dute, itxitura gisa.

Beharrok irauten duten bitartean, udal-iturriek iragarri dute Usategi parkerako sarbidea itxita egingo dela pertsona guztientzat, lanakaz eta makinariagaz interfe-  
rentziarik egon ez dadin. ◀

**SAN NIKOLAS**  
IRABOIA

**URTEBETEKO**  
IZEN EMATEA ZABALIK

**ERDIGUNEAN ZU**

**SANIKOLASEUS**  
Areneazpi Kalea, 15 (48991)  
Getxo, Bizkaia



**Getxo** 46. Nazioarteko Jazzaldia

# Jazz doinuek bere egingo dute Algortako erdigunea egunotan

**Daborduko ekainaren 28tik uztailaren 2ra bitartean Muxikebarrin izango diren kontzertuetarako sarrerak eros daitezke, ohiko lekuetan. Bonuak 70 euroan daude.**



Doako saioak daude ere, Hirugarren Milurtekoa atalekoak, Telletxe plazan.

**O**hi legez, izen handiko musikariek parte hartuko dute Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren 43. edizioan, hilaren 28tik uztailaren 2ra arte, Algortan. Saio nagusiak, ordainpekoak, Muxikebarri Antzokian izango dira, eta bertan arituko dira, Vincent Meisner Trío, Jazzmeia Horn, Vitor Carrascosa Quartet, Kurt Elling, Giulio Ottaneli Quartet, Marc Ribot, Jarecki Jazz Octet, Al Di Meola Acoustic Trío eta

Dave Holland, 21:00etatik aurrera. Hirugarren Milurtekoa atalean, Olatz Garcia, Miguel Salvador, Muriel Grossman Quartet, Triskel Trío, Matthias Van Den Brande Trío eta Michel Bonifati Emong talde eta musikarien doinuez gozatu ahal izango da Telletxe plazan, doan, 19:00etatik aurrera.

Horrez gainera, familientzako saioak, *jam sessionak* eta kaleko desfileak egongo dira aste-akabuko egunetan, besteak beste. ◀

**Berango** Ikasturte amaiera

## Udal-ikastaroek ikuskizunak egingo dituzte egunotan

**U**da heltzeaz dagoela, amaiera eman behar zaie udal-tailer eta ikastaroei. Askotarikoak izan dira hilabeteotan ikasitakoak eta, abilezia horiek udal-erriko beste bizilagunakaz konpartitu guran, Berangoko kultur eskaintza osatzen duten taldeek euren azken ikuskizunak eskainiko dituzte egunotan.

Joan den ekainaren 3an, zapatuan, eskaini zuten lehenengo ekitaldia, Berango Antzokian, eta, horretan, Kultur Etxeko zein Nagusien Etxeko dantza-ikastaroetako ikasleen emanaldia izan zen. Besteak beste, haurrentzako dantza modernoa, aretoko dantza, sevillanak, karibeko dantzak eta hilaran dantzak eskaini zituzten. Hurrengo egunetan ere beselako ekitaldi bereziak egongo dira gozagai. Gauzak horrela, ekainaren 18an, dantza eskolak ikasturte amaierako ikuskizuna eskainiko du Antzokian; hilaren 21ean, aldiz, udal musika eskolaren txanda izango da. ◀

**Berango** Txirlora teatro

## Fernando Ansoleaga Berangoko kultur gilea zendu da

**B**esteak beste, Berangoko Pasio Bizidunaren arima, Txirlora antzerki-taldeko zuzendari eta askotariko beste hainbat antzerki- eta kultur-ekimenerako partaide izan zen Fernando Ansoleaga Bazoabal zendu da, 77 urte zituela. ◀



**Leioa** San Juan jaiak, ekainaren 16tik 26ra

# Apustu musikal indartsua Leioako sanjoanetarako

**Bulego, Huntza eta Chambao izango dira aurtengo Leioako jaietako kontzertuetako buru. Musikaz gain, hainbat zeregin ere antolatuko ditzute aurtengo sanjoanetarako.**

**K**ontzertuak izango dira aurtengo Leioako San Juan jaietako protagonista handiak. Horretarako, Udaleko eta Txosna Batzordeko antolatzaileek ekainaren 22tik 24ra doazen gauetan, Ikaztegian eta txosna-guneko agerlekuetan sei hitzordu musikal taularatuko dituzte.

Baina ez hori bakarrik, ekainaren 16an hasiko dira jarduerak, eta umeentzako barrakak 26ra bitartean egongo dira. Tarte horretan, leioaztar guztientzako moduko jarduerak egingo dituzte: kuadrillentzako probak, kirol-lehiaketak, umeentzako jarduerak, barrakak, dantzak eta askotariko ikuskizunak.

Besteak beste, ekainaren 17an, Antzinako Eguna ospatuko dute Boulevarden: Paela Txapelketa, umeentzako tailerrak eta jolasak, Euskaraokea, erromeria... Txupinaren jaurtiketa eta Mari Pepa eta Arloteren pregoia ekainaren 22an egingo dute, 19:00etatik aurrera. Horren ostean, kuadrillen jaitsieragaz hasiko dituzte lagun-taldean arteko probak. Hilaren 23an, San Juan bezperan, ohiko Akelarrea eta ikuskizunak ere egingo dituzte. ◀

## San Juan jaiak

### Ekainak 16, barikua

- 19:00 Barraken irekitzea.
- 22:30 Umore bakarriketa, Aldapa aretoan.

### Ekainak 17, zapatua

- 09:00 XXIII. Arrantza Txapelketa, Lertutxe urtegian.
- 10:30 Antzinako Eguna, Boulevarden.

### Ekainak 18, domeka

- 12:00 XXI. Jota Txapelketa.

### Ekainak 22, eguna

- 19:00 Txosnen irekiera.
- 21:00 Mari Pepa eta Arloteren pregoia eta txupinaren jaurtiketa. Ostean, kuadrillen jaitsiera.
- 22:30 Kontzertuak: Kai Nakai, Merina Gris eta Pary & Itza, txosna-gunean.
- 23:00 Kontzertuak: Huntza, Ikaztegian.

### Ekainak 23, barikua

- 12:00 Umeentzako ekintzak, Errekalde plazan.
- 18:00 X. Txuma Memoriala.
- 19:00 Akelarreko poteo-musikatua.

- 22:30 San Juan Gaueko ikuskizuna, Hortzmuga konpainiaren eskutik, Boulevarden.
- 22:30 Erromeria: Bizpahiru Pelau, txosna-gunean.
- 00:00 Akelarrea, txosna-gunean.
- 00:30 Kontzertua: Chambao, Ikaztegian.

### Ekainak 24, zapatua

- 17:00 Sokatira Txapelketa.
- 18:30 Leioako musika-bandaren saioa.
- 20:00 Emakumezkoen Pala Txapelketa eta eskuzko pilota finalak. Bukatzean, sardina-jana.
- 20:00 Musika ikuskizuna: Urban Cross Music Udondoko bulebarrean.
- 22:30 Kontzertuak: Basaki, Arene 6 eta Iheskide, txosna-gunean.
- 22:30 Kontzertuak: Olaia Inziarte eta Bulego, Ikaztegian.

### Ekainak 25, domeka

- 13:00 Bertsolariak: Naroa Torralba, Julio Soto, Maddi Ane Txoperena eta Aitor Mendiluze, Boulevarden.
- 18:00 Dantza erakustaldia.
- 18:30 Kantu kolore; ostean, txokolatada.
- 21:00 Kuadrillen sari-banaketa.

digitala  
inpresio



**Inprimatze Digitala  
Formatu Guztietan**

Sabino Arana 82, 48940, Leioa  
944 649 176 - 944 014 431  
monkopileioa@gmail.com

**KOPILEIOA**

**Hiruka Kooperatiba Elkartearen  
Ohiko BATZAR NAGUSIA-Deialdia**

DATA: 2023ko ekainaren 14an  
LEKUA: Algotako Azebarri Kultur Elkartea (Euskal Herria, 18)  
ORDUA: 18:30ean

**Gai-zerrenda**

1. Batzarreko akta sinatuko duten bazkideen hautaketa.
2. 2022ko kontuen aurkezpena eta horien onarpena, balegokie.
3. 2023. urtea.
4. Estatutuen aldaketa - 11/2019 Legea
5. Bertaratutako bazkideen ekarpenak.
6. Behin - behineko akta.



**Sopela** San Pedroko jaiak, ekainaren 28tik uztailaren 2ra

# Sanpedroak, jai euskaldun eta herrikoiak

**Heltzear daude berriro ere Sopelako jaiak; aurten ekainaren 28tik uztailaren 2ra. Hala, Sopelako Kuadrillak taldeak jaietarako plangintza helarazi dute.**

**U**rtero bezala, musika herrikoa, txapelketak eta txosnetako giroa izango da nagusi —Udalak herrigunetik Loroño apartakalekura lekualdatu du, eta horrek askotarikoen keak eragin ditu— Sopelako San Pedro jaietan. Oraindino udalerriko Udaleko eta tokiko jai-batzordeko egitaraua eskuragarri ez egon arren —laster egingo dute publiko, iturrien arabera—, Sopelako Kuadrillak taldeko kideek «herritik eta herriarentzako» antolatutako programazioa konpartitu dute. Modu horretan, sanpedroetako giroaren aurrerapen bat dakargu jaietarako gorputzak berotzen hasteko asmoz.

Denera, bost eguneko programazioa osatu dute, ekainaren 28tik uztailaren 2ra arte ekintza andana antolatuz. Jai egun guztietan zehar askotariko hainbat froga eta txapelketa egingo dituzte, hala nola Sopelako panderojoleakaz batera Zantzo Txapelketa antolatu dute, Tortilla eta Sangria Txapelketa, Tribial Txapelketa, baita Paella Txapelketa ere jai-batzordeagaz batera. Modu horretan, froga guztietan puntuak bilduko dituzte amaiera-

## Sopelako Kuadrillak antolatutako egitaraua

<p><b>Ekainak 28, eguaztena</b></p> <p><b>19:00</b> Kuadrillen jaitsiera.</p> <p><b>21:00</b> Txupinaren jaurtiketa eta txaranga txosnetaraino.</p> <p><b>22:00</b> Txosnen irekiera.</p> <p><b>Ekainak 29, eguena</b></p> <p><b>17:00</b> Herri kirolak.</p> <p><b>18:30</b> Zantzo txapelketa.<sup>1</sup></p> <p><b>19:30</b> Elektrotxaranga.</p> <p><b>Ekainak 30, barikua</b></p> <p><b>14:00</b> Tortilla eta Sangria Txapelketa.</p> <p><b>18:00</b> Lehorreko jolasak.</p>	<p><b>Uztailak 1, zapatua</b></p> <p><b>15:00</b> Herri-bazkaria.</p> <p><b>18:00</b> Ur-jolasak.</p> <p><b>20:30-22:30</b> Poteo musikatua.</p> <p><b>Uztailak 2, domeka</b></p> <p><b>12:00</b> Paella Txapelketa.<sup>2</sup></p> <p><b>18:00</b> Tribial Txapelketa.</p> <p><b>19:30</b> Bertso-saioa eta sari-banaketa.</p> <p><sup>1</sup> Sopelako panderojoleek antolatuta. Hala ere, froga honek puntuak emango ditu Kuadrillen Txapelketarako.</p> <p><sup>2</sup> Jai-batzordeagaz batera antolatuta. Froga honek puntuak emango ditu Kuadrillen Txapelketarako.</p>
---	---

**«Elektrotxaranga eta poteo musikatua bezalako ekitaldiek giroa animatuko dute»**

ko Kuadrillen Txapelketarako. Gainera, ohi legez, musika jaietako protagonista handia izango da: elektrotxaranga eta poteo musikatua bezalako ekitaldiek giroa animatuko dute. Azken egunean, jaietako amaiera emango diote bertso-saio batez eta sari-banaketagaz. Beraz, hasi prestatzen, badatozela San Pedroko jaiak! ◀







# ERANDIO JAIETAN!!

ERANDIOGOIKOA

Ekainak 8-11

FAOETA

Ekainak 11 eta 17

GOIERRI

Ekainak 13  
eta 17-18

Uztailak 8-10

EUSKARAZ BIZI

KUKULARRA

Ekainak 23-25

ARRIAGA

Ekainak 30  
Uztailak 1-3

ASUA

Uztailak 14-16

ASTRABUDUA

Abuztuak 9-13

SANTIMAMI

Abuztuak 17-18

ALTZAGA

Abuztuak 24-28\*

ENEKURI

Irailak 8-10

LUTXANA

Irailak 15-17

EUSKARAZ GOZA

\* jai egun ofiziala



**Barrika** San Juan jaiak, ekainaren 22tik 25era

# Sanjoanak, auzokide guztien topaleku

**Udari ondoetorria egiteaz batera, udalerriko jai ospetsuenak ospatuko dituzte Barrikan ekainaren 22tik 25era. Aurretik, baina, ekitaldiak ez dira faltako.**

**O**hi legez, udako solstizioa ospatzeko asmoz, jaiak eta algara nagusi izango da hilaren 22tik aurrera Barrikan. Hala ere, aurretik ere ospakizunen usaina protagonista izango da kostaldeko herri horretan; besteak beste, ekainaren 18an, domekan, tradiziozkoa bilakatu den Argazkilaritza Rallyaren edizio berri bat egingo dute, non argazkizaleek euren irudirik politena harrapatzen saiatuko diren. Horrez gainera, bezperan, ekainaren 17an, hilaren 25era arte iraungo duen benjamin eta alebin mailako tenis txapelketari hasiera emango diote.

Dena dela, ekainaren 22era arte itxaron beharko da «benetako» jaiari heltzeko, sanjoanetan murgiltzeko, hain zuzen. Eguen horretan, billar txapelketan aritu ondoren, 19:00etan, txupina jaurti, pregoia irakurri eta udaldian txonbo egiteko hamaika jardueraz gozatzeko aukera izango dute barrikotzarrek, eta, nola ez, udalerrira hurbilduko diren guztiak. Ondoko kutxan egitaraua topa dezakezue, baina, kontuz, behin-behinekoa da-eta! Ondo pasa! ◀

## San Juan jaiak

### Ekainak 18, domeka

**09:00-15:00** Argazkilaritza Rallya.

### Ekainak 22, eguena

- 17:00** Billar txapelketa.
- 19:00** Txupinaren jaurtiketa eta pregoia.
- 19:30** DJ Kaktus eta diskofesta «Bihurriak gara».
- 20:00** Sardina-jana eta sagardo-festa.

### Ekainak 23, barikua

- 18:00** Pala Txapelketa.
- 18:00** Haurrentzako zirku-tailerra.
- 19:00** Ikuskizuna: *Bidaibizitzen*.
- 21:30** Tai Xi erakustaldia.
- 22:00** Txokolate-jana.
- 22:00** Ikuskizuna: *Labarretan*.
- 23:00** San Juan sua.
- 23:00-02:00** Erromeria: Nonbait.

### Ekainak 24, zapatua

- 12:00-21:00** Pala Txapelketa.
- 11:00-14:00** Puzgarriak.
- 11:00** Meza nagusia.
- 12:00** Barrikako Aita Gotzon Abesbatzaren kontzertua.
- 12:30** Agurra, Emakumeen Hitza

- dantza taldearen eskutik.
- 14:00** Herri-bazkaria.
- 17:00** Mus Txapelketa.
- 18:00** Monda Lironda pailazoaren *Desioak* ikuskizuna.
- 19:30** Dantza plaza: Zuzterrak.
- 21:00** Gaueko VIII Padel eta Tenis txapelketa. Izen-ematea: ekainaren 15etik 20ra bitartean.
- 21:30** Kontzertua: Harria Band.
- 23:30** Kontzertua: La Tokokera.

### Ekainak 25, domeka

- 10:00** Nekazaritza eta Artisautza Azoka.
- 11:00** *Walking* futbola, Atxutegi futbol zelaian.
- 11:00-14:00** Sukalki Txapelketa.
- 11:00-15:00** Eskalada tailerra.
- 12:00** Igel-toka Txapelketa.
- 12:00-14:00** Egurrezko jolas erraldoiak.
- 12:00-14:00** Pala Txapelketako finala.
- 13:00** Barrikako Euskal Dantzak taldea Emakumeen Hitzaren eskutik.
- 14:00** Bitsa jaiak.
- 14:30** Bendeja sari banaketa.
- 17:30** Sukalki sari banaketa.
- 18:00** Asier Kidam magia ikuskizuna.

Udaletxe Errepidea, 16,  
Elexalde, Bizkaia

Ekainak 23 Barikua  
Junio 23 Viernes

Parrillada, kontzertuak eta San Juan sua  
Parrillada & conciertos & hoguera

18:00etatik aurrera | de 18:00 en adelante



Barrikako hondartza  
Paya de Barrika

**Urbe Kosta** Maiatzaren 28ko udal-hauteskundeen emaitzak

# Bozen zenbaketaren ostean, udalbatzak osatzeko zain

Indarrak banatuta bukatu dira udal-hauteskundeak Urbe Kostan. Koloreak areagotu egin dira, eta emaitzek gauza bat dioten arren, ikusteke dago orain elkarren arteko aliantzek eta akordioek zer nolako panorama uzten duten udalbatzetan ekainaren 17tik aurrera.

TESTUA: IKER RINCON MORENO  
INFOGRAFIA: ARTEFAKTO ▶

**Gorliz**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
Gorliz Bizirik	5	1.009
EH Bildu	4	943
EAJ	4	877

**Lemoiz**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EH Bildu	5	429
EAJ	4	292

**Barrika**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EAJ	4	295
EH Bildu	4	244
iBarrika	1	101

**Sopela**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EH Bildu	8	2.439
EAJ	6	2.061
AVS/SAA	1	562
PSE-EE	1	482
Elkarrekin P.	1	404

**Plentzia**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EH Bildu	6	1.056
EAJ	3	586
IHE	2	419

**Urduliz**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EAJ	6	1.068
EH Bildu	6	1.023
Elkarrekin P.	1	221

**Getxo**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EAJ	9	11.949
PP	6	8.168
EH Bildu	6	7.590
PSE-EE	3	3.887
Elkarrekin P.	1	2.105

**Berango**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EAJ	6	1.481
EH Bildu	4	968
PSE-EE	1	345
PP	1	344
Elkarrekin P.	1	244

**Leioa**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EAJ	8	5.457
EH Bildu	5	3.086
PSE-EE	3	2.154
PP	3	1.839
Elkarrekin P.	2	1.378

**Erandio**

ALDERDIA	ZINEG.	BOTOAK
EAJ	8	3.749
EH Bildu	6*	2.630
PSE-EE	4*	2.196
Elkarrekin P.	2	1.372
PP	1	459




Uribe Kosta Hareatza jakin batzuetara

# Udan ere, txakurrakaz hondartzara joan daiteke

**H**ondartza denboraldiaren hasieragaz batera, sorospen zerbitzua eta dutxak jartzen dituzte hareatzetan, baina txakurren sarbidea asko mugatzen da. Hala ere, iluntzean eta goizaldean etxeko animaliakaz itsasaldera joaten jarraitu daiteke uda-sasoian ere, lekuaren arabera.

Eskualdean, hondartza bakoitzaren kasuan, dagokion udalak ezartzen du zein ordutan sartu daitezkeen animaliak hareatzetara. Gehienetan, sorospen-zerbitzua martxan egon aurretik eta hori bukatzean baimentzen da animalien sarrera. Gainera, zaintzarik ez duten hondartzetan, hala nola Ugeragan edo Meñakotzen, uneoro joan daiteke animalia-



## Ofizialik ez

Bizkaian ez dago ofizialki txakurrentzako bereziki gaitutako hareatzarik, udal bakoitzak dauka hori arautzeko eskumena.

kaz, baina horrek ez du esan nahi txakurrentzako hondartza ofizialak direnik.

Ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean, Barrikan, Muriola hondartzan, animaliak iluntzeko 20:00etatik goizteko 06:00ak arte egon ahalko dira; Sopelako Arriatera, Atxabiribil eta Barinatxe hondartzan kasuetan, 20:00etatik 09:30era sartu daitezke; eta Plentzian, 21:00etatik 06:00etara.

Aldiz, Getxon hondartza denboraldian ezin daitezke animaliak hareatzetara sartu. «Higiene- eta osasungarritasun-arrazoiengatik» Udalak ez ditu txakurrak baimentzen udalerriko hareatza nagusietan, ez goizean ez iluntzean, denboraldia amaitu arte. ◀

Publierreportajea **Artolozaga Anaiak**

ARTOLOZAGA ANAIK TAILERRAK

Gatzarriñe kalea 42, 48600, Sopela • 946 760 013 • [www.talleresartolozaga.com](http://www.talleresartolozaga.com)

## Zure konfiantzazko tailerra



**A**utoen konponketako fase eta atal guztiak hartzen dituzten profesional talde kualifikatua dute Artolozaga anaiak. Mekanika osoa, elektronika, diesel zein gasolina ibilgailuak, gurpilak, txapa eta pintura jorratzen dituzte Sopelako Gatzarriñe kalean duten tailerrean. Horietan emaitzarik onena izateko goi mailako teknologia darabilte, eta Bosch Car Service ziguiluren bermea daukate.

**Etxetik hurbil eta 40 urteko ezagutza metatuagaz, Artolozaga anaiak da ibilgailua prest jartzeko eta edozein konponketa egiteko tailerra, zalantza barik.**

nez, besteak beste, ordezko pieza originalak erabiltzen dituztela ziur egon zaitezke.

Ez izan zalantzarik, autoak arazoak ematen badizkizu, motorra hondatu bazaizu, IAT gainditzeko arazoak badituzu, doikuntzak egin behar badizkiozu edo etxetik hurbil konfiantzazko tailer baten bila ari bazara, joan Artolozaga anaiak tailerrera eta ez zaizu damutuko.



**Multimarka. Artolozaga anaiak marka eta mota guztietako ibilgailuak artatzen dituzte euren tailerrean.**



**Diagnostikotik hasita, konponketa konplexuenetara egiten dute, baita mantentze-lanak ere. Jarduera integrala.**



**Ibilgailu elektrikoak eta hibridoak ere artatzen dituzte. Teknologia berrienetara moldatutako mekanikarekin.**

A night scene featuring two individuals dressed as devils, wearing black hooded jackets with red flame patterns and red horns. They are holding long poles with fireworks attached, which are exploding in the dark sky, creating a shower of sparks and light. The background is filled with the glow of many other fireworks and the faint silhouettes of a crowd.

# Umore Azoka

**Urtez urte Leioako kaleko artisten azoka gero eta handiagoa ari da bilakatzen; 23. edizio honetako datuek hori berretsi dute: 30.000 ikusle baino gehiago, 90 ikuskizun eskaini dituzten 43 konpainia eta sektoreko profesionalentzako jardueretan 300 pertsonak inguru eman dute izena.**

**Gainera, inoiz baino artista gehiago dira euren lanak estreinatzeko Umore Azoka aukeratzen dutenak. Leioa ezinbesteko geralekua bihurtu da kaleko arte eszenikoen munduan.**

TESTUA: ANDER ZARRAGA ARGAZKIAK: HODEI TORRES

























---

THIS WAVE, WHICH STARTS AT THE MUNDAKA BAR AND ENDS AT LAIDA BEACH, IS CAUSED BY WINDS FROM THE SOUTH-SOUTHWEST, AND CAN REACH 4 METERS IN HEIGHT AND 400 METERS IN LENGTH.

---



Jon Garcia Ormaza Psikiatra

# «Gomendagarria da suizidioaz galdetzea, epaiketarik egin gabe»

**2021an, Getxo ZUrt! egitasmoa sortu zuten Getxoko Jon Garcia psikiatrak eta Fundación Doble Sonrisa-ko Naomi Hasson erizainak, suizidioaren prebentzioan lagunduko zuen proiektu bat aurrera eramateko xedeagaz. Bi urte geroago, egitasmoa inoiz baino aktiboago dago, eta, horregatik, Garciagaz elkartu gara suizidioari lotutako mito guztiak ezabatzeko asmoz.**

TESTUAK: NAHIA MARTINEZ GONDRA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

**Zertan datza Getxo ZUrt! egitasmoa? Zergatik sortu zenuten proiektu hau?** Proiektu honen hastapenak 2021. urteko urtarrilean kokatzen dira: Fundación Doble Sonrisa elkarte-ko Naomi Hasson eta biok elkarrizketa bat izan genuen, eta nahiz eta arlo ezberdinetatik etortzen ginen, biok argi genuen suizidioa saihesteko lanak egin behar genituela Getxon. Modu horretan, Getxo ZUrt! egitasmoa nazioartean eraginkorrek gertatu diren neurriak aplikatuz sortu zen. Halaber, proiektu hau Getxo Bihozbera komunitatearen parte da, eta udalerrian jokabide suizidaren intzidentzia, prebalentzia eta inpaktua murrizteko helburuarekin sortu zen. Horrenbestez, Nazioarteko ebidentziak aditzaera eman du leku publikotan egindako interbentzioak direla suizidioa prebenitzeko ekintzarik eraginkorrenetarikoak. Eta, horri jarraituz, arrisku handiko lekuak babestea da Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategian (2019) jasotzen den neurria.

Horregatik, gurean, Galeako itsaslabarra ohiko suizidio lekua izanik, Getxo ZUrt! egitasmoa martxan jarri genuen bertan jarduteko beharrari jarraiki. Era horretan, maila anitzetan diharduen prebentzio proiektu komunitario eta parte-hartzaile batean oinarritzen da egitasmoa, zehazki, jokabide-suizidaren prebentzioa, interbentzioa eta posbentzioa landuz. Era berean, proiektu aurrendaria dela esan dai-

**«Kezkatzen zaituzten suizidio-ideiak badituzu edo heriotza-pentsamendurik baduzu, galdetu osasun-profesional bati. Eskatu ordua, ahal bezain laster, Lehen Mailako Arretako medikuarekin. Terapeuta batekin tratamenduan bazaude, jarri harremanetan orain nola sentitzen zaren azaltzeko».**

teke, komunitatean ardatzen dituelako aurrera eramandako prebentzio neurri guztiak.

**Zehazki, zeintzuk dira martxan dituzuen ekintzak suizidioaren prebentzioa, interbentzioa eta posbentzio hori bermatzeko?** Getxo ZUrt! proiektuaren barnean aurrera eramaten ditugun ekintza nagusiak lau dira. Hasteko, biztanleriak suizidioaren prebentzioaren, esku-hartzearen eta posbentzioaren inguruan duen ezagutza areagotzeko helburua dugu. Horretarako, alde batetik, mito zein ideia faltsuak deseraikitzen ditugu; beste aldetik, era sentikor eta arduratsu batean jokaera-suizidaren epidemiologia eta fenomenologia ezagutarazten ditugu; eta, azkenik, herritarrei egun dauden prebentzio, esku-hartze zein posbentziorako errekurtso publikoen berri ere ematen diegu. Bigarrenik, Galeako amildegietan pertsona zaurgarriak laguntza eskatzera bultzatu eta baliabide eraginkorren berri ematen duten kartel zein seinaleak instalatzeko proiektua dugu martxan. Modu horretan, boluntario talde bat itsaslabarretan ibiltzen da astero, eta, haiek, benetan lagungarria den presentzia, laguntza eta itxaropena sinbolizatzen dute. Hirugarrenik, maitatutakoren bat suizidioz galdu duten pertsonen arteko bilerak eta elkarguneak indartzen ditugu (horri posbentzioa deritzo), interakzio horrek bakardade eta isolamendu-sentsazioa murrizten ditue-

## ! Non eskatu laguntza?

**OSASUN AHOLKUAREN DOAKO TELEFONOA:**

900 20 30 50

Osakidetzako erizaintza-talde batek artatuko zaitu eguneko 24 orduetan.

**BEREHALAKO TELEFONOA:**

024

Suizidio-jokabideari arreta jartzeari buruzkoa, eguneko 24 orduetan, Osasun Ministerioarena.

**EMERGENTZIAK:**

112

**ITXAROPENERAKO TELEFONOA:**

717 003 717

lako. Azkenik, aurrera eramaten dugun beste ekintza bat da koordinatzea jokaera-suiziden kudeaketan diharduten agente ezberdinen esku-hartzea. Modu horretan, jarduera protokoloaren hobekuntzan laguntzen dugu.

**Sarritan deserosotasuna sentitzen dugu suizidioaz mintzatzean. Nola normalizatu dezakegu afera hau?** Mito eta faltsukeriei aurre eginez. Besteak beste, suizidioari buruzko mitoak eta ebidentziak hauek dira: suizidioari buruz hitz egiteak ez du suizidioa sustatzen; alderantziz, prebentzioa sustatzen du. Ebidentziak erakutsi du jokabide suizidaren arriskua prebenitu daitekeela, eta gaixotasun mentala arrisku-faktore garrantzitsua den arren, suizidio-arriskua duten guztiak ez dutela nahasmendu mentalik. Halaber, suizidio-mehatxuak arreta-dei bat direla mito bat da; alderantziz, ez da inoiz suizidio-mehatxurik gutxietsi behar, pertsona hori ideazio-suizidatik suizidio-saioa pasatzen ari dela adierazten baitu. Horretarako, ezinbestekoa da arrisku-faktoreak, babes-faktoreak, prezipitatuak, alarma-seinaleak eta gure artean ditugun laguntza-baliabideak guztiak ezagutzea.

Modu horretan, informazio hori badugu, edonorengan min mentala edo sufrimendua nabaritzen dugunean, suizidio arriskurik ote dagoen detektatzeko galderak egin ahalko dizkiogu, lasaitasunez, eta, betiere, inongo epaiketarik egin gabe.

**Zeintzuk dira bere buruaz beste egiteko nahia duten pertsonen «alarma-seinaleak»?**

Beharbada, errazen identifikatu daitekeen alarma-seinalea suizidioari buruz hitz egitea da. Adibidez, hiltzeko edo bere buruaz beste egiteko gogoia jakinaraztea; edota suizidatzeko planak egitea —buruaz beste egiteko metodoak bilatzea—. Gainera, iruzkin, plan edo mehatxu horiek sare sozialetan ere argitaratu ditzake pertsona horrek. Bigarrenik, alarma-seinale psikologikoak ere badaude, hau da, min-psikikoa, etsipena, karga izateko pertzepzioa, edota norberarekiko etsaitasuna sentitzea. Hirugarrenik, hurrengo jokabide-seinaleak eta seinale fisikoak ere alarma-seinale ohikoak dira: konektagarritasun txikia izatea, hau da, kide izateko sentipen eskasa eta gizarte-inplikazio urria; loaren nahasmenduak edukitzea —lo ezina bereziki—; suminkortasuna; alkohol nahiz droga gehiago kontsumitzeko joera; gauzak oparitzea, agurtzea edota sare sozialak ageriko arrazoirik gabe ixtea...

**Demagun inguruko lagun, familiar ala ezagun batek suizidatu gura duela komunika-**



**Ekiteko modua**  
**«Norbaitengatik kezkatuta egotekotan, hitz egin behar dugu berarekin: pertsonari entzun behar zaio, eta, betiere, guretzat garrantzitsua dela erakutsi»**

**tzen digula, edota, esan gabe ere, guk suizidatzeko nahia sumatzen diogula. Nola jokatu beharko genuke bera laguntzeko?** Norbaitengandik kezkatuta egotekotan, hitz egin behar dugu berarekin: pertsonari entzun behar zaio, eta, betiere, guretzat garrantzitsua dela erakutsi. Gainera, lehen aipatu bezala, gomendagarria da suizidioari buruz galdetzea, baina lasaitasunez eta epaiketarik egin gabe. Modu horretan, ez gara bizitzaren balioari buruz eztabaidan hasiko, ezta arazoak gutxieten edo aholkuak ematen ere; aldiz, aurrean daukagun pertsonaren sufrimendua balioztatuko dugu, eta gure laguntzeko asmoa erakutsiko dugu, askotan laguntza bilaketa dena.

**Askotan ohartarazi dute komunikabideetan suizidioaren inguruko datuak eta berriak zabaltzea arriskutsua izan daitekeela gizartearentzat, modu horretan, suizidioa sus-**





Garcia 2021. urtean jarri zuen martxan GetxoZURt! proiektua. HODEI TORRES

**tatzeko arriskua baitago. Ados zaude? Nola jorratu beharko litzateke suizidioaren auzia komunikabideetan?** Buruaz beste egiteagatik hil izana ez da albiste izan behar, batez ere tokiari edo metodoari buruzko informazioa partekatzen denean, edo arrazoi edo kausa bakar bat modu sinplista batean ezartzen denean. Hori egiteak pertsona zaurgarrien ondoeza areagotu dezake, eta, gainera, hildakoaren inguruneari kalte egiteko arriskua ere badago.

Aitzitik, komunikabideen jardunak efektu prebentibo bat ere izan dezake gure gizartean hurrengo lanketa hau egiten dutenean: suizidioa osasun publikoko arazo bezala ikusgai jartzen dutenean, eta horrek inplikaturik dauden arrisku- eta babes-faktoreei erreparatu diotenean, baita arrisku-seinaleak nola detektatu azaltzen dutenean ere. Gainera, gure artean diren baliabideak partekatzen dituztenean efektu prebentibo gisa ere har ditzakegu.

**Galeako kartelak**  
«**Pertsona zaurgarriak –min-psikiko bizia eta suizidio-ideiak dituzten ibiltariak– laguntza eskatzera animatzen dituzte kartel horiek. Ebidentziak erakutsi du eraginkorrak direla suizidioa prebenitzeko, izan ere, kartelak pertsona zaurgarriaren sufrimendua balioztatzen duen eta laguntzeko prest dagoen laguna sinbolizatzen du»**

**Aipatu bezala, maite duten norbait bere buruaz beste eginez galdu duten pertsonen elkartegintza ere sustatzen duzue. Nola egiten duzue?** Maitatutakoren bat galdu duten pertsonak ZURt!-eko «superbibileentekin» harremanetan jartzeko aukera dute, izan ere, trauma hori bizi izan duten pertsonak dira entzuteko eta laguntzeko egokienak. Horretaz aparte, superbibileentek gure artean hartzen ditugun erabaki guztietan parte hartzen dute, Getxo ZURt!-eko partaide aktiboak dira. Hala, haiek dira puzzlearen barnean funtsezko pieza.

**Kontuan hartuz pertsona bakoitzaren dolua ezberdina dela, zeintzuk dira suizidioagatiko doluaren ezaugarri nagusiak?** Dolu bakoitza intimoa da, partikularra. Suizidioagatiko dolua bereziki zaila da, errua, haserrea, beldurra, lotsa eta distantzia soziala bezalako faktoreak lotzen dituelako. Lagun eta senideekin, eta lagun eta senideentzat lan egitea betebeharrak ez, suizidioa saihesteko modu eraginkorrenetako bat ere bada.

**Lehen aipatu duzun moduan, Galeatik kartel batzuk ere jartzeko asmoa duzue, modu horretan, suizidioa prebenitzeko. Zer nolako eragina dute pertsonengan horrelako mezuek?** Kartel horiek, pertsona zaurgarriak –min-psikiko bizia eta suizidio-ideiak dituzten ibiltariak– laguntza eskatzera animatzen dituzte. Ebidentziak erakutsi du eraginkorrak direla suizidioa prebenitzeko, izan ere, kartelak pertsona zaurgarriaren sufrimendua balioztatzen duen eta laguntzeko prest dagoen laguna sinbolizatzen du. Nahiz eta oraindik ez dugun kartelak jarri, laster horiek jartzen hastea espero dugu.

**Nola eragiten dute sare-sozialek pertsonen osasun mentalean, eta, horrenbestez, suizidioan?** Sare-sozialen erabilera okerrak pandemia baino lehen ere kezkatu gintuen. Izan ere, sare-sozialek erabiltzaileak etiketatu eta konparatzen dituzte, eta askotan zoragarria bezain irreal den agertoki bat sortarazten dute. Horretaz aparte, sufritzen duten pertsonen ez die batera laguntzen: ezin dituzte ondoeza edo sufrimendua bezalako sentimenduak balioztatzen, eta gaizki-ulertu izatearen sentipena ere areagotzen dute. Horrenbestez, isolatuagoak sentitu gaitezke sare-sozialen erabileraren ondorioz.

Hori gutxi balitz bezala, denbora kentzen digute benetako pertsonarteko harremanetan trebatzeko; eta, gainera, antsietate eta lo ezin maila handiagoarekin lotzen dira, batez ere, oheratu aurretik gauez sare sozialak ere erabiltzen direnean. ◀

# Ekaina-uztaila



Eskaneatu QR kodea eta izan mugikorrean eskualdeko udako jai guztien informazioa.

## Barrika

Ekainak 24, zapatua

### Bisita gidatuak Zabaletxe aztarnategira

10:00 eta 16:00

Doako bi pase egingo dituzte. Izen-emateak Plentziako turismo bulegoan.

## Berango

Ekainak 18, domeka

### Dantza: ikasturte amaierako ekitaldia

18:00 | Berango Antzokian

Udal dantza eskolaren ikasturte-akabuko dantzarien ikuskizuna.

## Erandio

Ekainaren 12tik 18ra

### Euskal Astea

Astrabudian

Trabudu Dantza Taldeak antolatuta, hainbat ekintza egingo dituzte.

Ekainak 23, barikua

### San Juan Gaua

18:30 eta 20:30 | Astrabudian eta Erandiogoikoan

Umeentzako ekintzak, musika eta sua egingo dute udako solstizioa ospatzeko.

## Getxo

Ekainak 16, barikua

### Bertso-saioa: Balkoitik balkoira

21:30 | Algorta Portu Zaharrean

Joanes Illarregi eta Sustrai Colina bertsolariakaz.

Ekainak 16, barikua

### Hitzashow: Anbotoko drama

19:00 | Abian kultur elkarte

Udaberriko eguenak Abian kultur elkarte.

Ekainak 16, 23 eta 25

### Zinegoak

15:00 | Abian kultur elkarte eta beste hainbat lekutan

Gaylesbotrans Nazioarteko Zine eta Arte Eszenikoen Jaialdiak Getxon ere izango da.

Ekainak 18, domeka

### Getxoko Munduko Arrozak

09:00 | Romo herri-ikastetxean eta San Eugenia plazan

Udalerriko 20 bat entitatek antolatuko ekimena.

Ekainak 16, 23 eta 25

### San Juan sua

18:00 | San Nikolas plazan

Umeek ederto pasatzeko hamaika ekintza.

## Gorliz

Ekainak 18, domeka

### Kirol Eguna

10:00 | Elizako plazan eta Itxasbide kalean

Kirol ezberdinak praktikatzeko aukera.

## Leioa

Ekainak 15, eguena

### Kontzertuak

19:30 | Kultur Leioan

Udal musika eskolako hari orkestren kontzertua.

Ekainak 15, eguena

### Dantza: Lau Ikuspegi

20:30 | Kultur Leioan

Andoni Aresti Dantza Eskolan sortutako lana.

## Plentzia

Ekainak 17, zapatua

### Familienezako ukelele tailerrak

11:00 | Goñi Portalen

Publiko guztientzako tailerra.

Ekainak 21, eguaztena

### Hitzaldia: Basoa

19:30 | Isuskitzamendi tontorrean

Herri Lurak Elkarte Ekologistak antolatuta.

## Sopela

Ekainak 16, barikua

### Dantzeriko ikasleen aurkezpena

19:00 | Kurtzio kultur etxean

Ikasturte bukaerako emanaldiak.

Ekainak 18, domeka

### Kosta Trail

09:00 | Udaletxeko plazan

Izen-emateak eta informazio guztia [www.kostatrail.com](http://www.kostatrail.com) webgunean.

## Urduliz

Ekainak 18, domeka

### Txiri-Txiri ibilbidea

10:00

Urduliz eta bere inguruko magia, Butroeko gaztelura oinez, lau orduko ibilbidea.

**Udaberriko Jaiak**

Ekainak 10 larunbata, 10:00etatik aurrera

ander deuna IKASTOLA

EKINTZA MORDOA ANTOLATU DITUGU IKASTURTEARI BUKAERA EZIN HOBEA EMATEKO. Animatu zaitezte elkarrekin ospatzera!

• IKASTOLAKO MATERIALA PROSTEKO AUKERA ERE EGONGO DA • ETXETIK EDACONTZIA EKARRI, MESEDEZ •





**Ibai  
Gorordo  
Fernandez**

**Nongoa**  
Algorta.

**Adina**  
31 urte.

**Zertan dabil**  
Lanean.

**Noiz heldu  
zinen?**  
2018ko irailean.

**Noiz arte  
bertan?**  
Bertan gelditzeko  
asmoa du.



**Lurraldea**  
Japonia.

**Azalera**  
377.972 km².

**Hiriburua**  
Tokio.

**Biztanleria**  
125.440.000 (2022).

**Hizkuntzak**  
Japoniera da nagusia,  
baina badira bestelako  
ryukyuar hizkuntzak.  
Ainua hizkuntza  
isolatua da eta  
mehatxupean dago.  
Idazketan, kanji eta  
kana darabilte batez  
ere.

**Moneta**  
Yen.

# «Japoniak berezitasun asko ditu, eta zaila izan daiteke ohitzea»

IKER RINCON MORENO ▶

Japoniak robotikaren munduan duen tradizioak erakarrira, 2015ean joan zen Ibai Gorordo algortarra aurrenekoz herrialde horretara, trukerako ikasle gisa. Dioenez, hasieran zaila egin zitzaion desberdintasun kulturalari ohitzea, «baina urtearen amaierarako bertako bizitzaz gozatzen hasi nintzen». Gainera, ordurako bere gaur egungo emaztea ezagutu zuen eta, bueltarako, hara itzultzeko aukerak bilatzeari ekin zion; 2018an Japonian Ingeniaritza Biomedikoan doktoretza bat egiteko beka jaso zuen, eta ordutik bertan bizi da. Bekari esker, hango edozein unibertsitate hautatzeko aukera izan zuen, eta azkenean Fukuoka aukeratu zuen, herrialdearen hegoaldean, Kyushu uhartean, «bertan iker-tu gura nuenetik hurbil zegoena ikertzen ari zen irakasle bat aurkitu nuelako». Gaur egun, Australiako startup batentzat egiten du lan, urrutiko lanean, ingeniari gisa; «itsuentzako betaurrekoak garatzen ari gara, inguruan zer dagoen jakiten laguntzeko».

Dioenez, Japoniak berezitasun asko ditu kulturari dagokionez, eta horrek egokitzapena zaildu dezake, «baina ohitzen zarenean, bizitza nahiko eroso da». Janaria ere oso ezberdina dela dio, eta sushia eta ramena bezalakoak gainera, Fukuokan *motsunabea* eta *mentaikoa* dute, besteak beste. Hala ere, arroza, *miso* zopa, barazkiak eta arraina zein barazkia jaten da batez ere. Orokorrean, dena garestiagoa da, fruta batez ere: «Sagar batek euro bat baino gehiago balio du». Edariari dagokionez, garagardoaz gainera, *sake* edo *sochua* edaten dute.

Fukuoka hiri atsegina da, handia izanik Tokioko jendetzarik ez duena. Hala ere, aitortzen du ez dagoela leku askorik bisitatzeko eta turista gehienek Kioto edo Tokio hirietara jotzen dutela. Hala ere, *yatai* janari-postuak bisitatzeko gomen datu digu, «Japonian nahiko arraroak dira-eta». Era berean, azaldu du garrantzia historiko handirik ez duen arren, Nagasaki eta Hiroshimatik gertu dagoela, eta, hasieran, amerikarrek Kukurako portua bonbardatu gura zutela, Fukuokatik gertu, «baina baldintza klimatiko txarrak zirela-eta, Nagasakin bota zuten bonba nuklearra. ◀



## Lehen/Orain **Goierriko Ander Deuna baseliza, Barrika. 1970ko hamarkada**



### Uribitakora



**TESTUA**  
Aitor Fernandez  
de Martikorena

**DOINUA**  
Izarren hautsa

**ARGAZKIA**  
Hodei Torres

## Ozeano basatia

*Lazunak-edo izan daitezke irudiko izakiak; gune txikian milaka daude, hiztegian lez hizkiak. Denek itxura berbera dute: badirudite bikiak; denak, goseak mugiarazita, kanpoaldera ilkiak... Ez dizkizute gogorarazten, irakurle, gizakiak?*

*Esaera bat badu euskarak guztiz ona, egiatia: badio "Mundu honek dirudi ozeano basatia, igeriketan ez dakiena hondoraino da jalkia". Indartsuenek bilduko dute bai edozein aitzakia, ingurunean inposatzeko gura duten hierarkia.*

*Baina, demagun, egun batean denok elkartzen garela, guztiok batu, izan antxoa, sardina, lazun, berdela... eta ikusita orain arteko gure jarrera tentela, bilakatua dugula Lurra toki zikin ta krudela... badakigu ez dela posible jarrai dezagun honela.*

**ALBE**

**Algortako  
Bertsolari  
Eskola**



Pertxel

# «Euskara ezagutarazteko aukera aparta da musika»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO  
ARGAZKIA: PERTXEL ▶

**T**rap musikaren eta autotunearen garai honetan, Uribe Kostako bikote batek kantautoreetara gehiago hurbiltzen den estilo bategatik egin du apustu, eta datozen Algortako saninazioetan zuzenean ikusteko aukera izango dugu, besteak beste.

**Nortzuk zarete Pertxel, eta nondik zatozte?** Gu Enaitz eta Maddi gara eta duela hiru bat hilabete sortu genuen Pertxel. Ikastolan ezagutu genuen elkar joan den urtean, eta gutxika-gutxika harremana estutzen hasi zen. Hasi batean, taldea sortzen hasi ginen, baina ez zen ezer ez atera. Aldiz, orain bai. Momentura arte kontzertu gutxi batzuk eman ditugu: Sopolako Herriko tabernan, Lataskan eta Algortako maketa lehiaketan.

**Zeintzuk dira zuen influentzia musikalak?** Berez ez dugu inoiz talde baten erreferentziarik izan. Abestiak sortzeko orduan, gustukoak ditugun taldeak bezala egiten saiatzen gara; euskal musikaren estruktura orokorra jarraituz, beti ere gure esentzia garatuz eta nabarmenean utziz.

**Hain gazteak izanda, zelan ikusten duzue Euskal Herriko musika-eszena?** Azkenaldian nabariak izaten ari dira musika-talde gazteak. Gainera, erregistro ezberdinekoak dira eta horrek aukera sorta berriak eskaintzen dizkio euskal musikari. Berez, euskaraz diren abestiak sortu ditugu orain arte eta berdin jarraituko dugu, euskarak guretzako duen garrantzia plazaratu nahi dugulako; euskara ezagutarazteko aukera aparta izan daiteke musika.

**Gaur egun beste mota bateko musika eta giroa modan egonda, nondik etorri zaizue kantautore formatuko talde bat sortzearen ideia?** Egia da gaur egun entzuten den musika nahiko ezberdina dela gure musikarekin alderatuta, baina gure baldintzak zeintzuk diren badakigu. Azken finean, gu musikariak gara eta jotzen dakizkigun instrumentuekin



## Epe laburrera, zer?

**Bertsioak egiteaz gain, momentuz hiru abesti original bakarrik ditugu, baina lanean gabiltza gehiago ateratzeko. Kopuru handiago bat dugunean, horiek grabatzeko eta argitaratzeko asmoa dugu. Horrez gain, kontzertu batzuk itxita ditugu jada.**

sortzen dugu gure musika. Oso zaila egingo zitaigun, adibidez, saxofoi edota gitarra akustiko bat guk erabiltzen ez dugun erritmo batean sartzea.

**Zelan ikusten duzue musika zuzenean jotzeko dauden aukerak?** Musika zuzenean jotzeko dauden aukerak nahikoak dira. Nabariena tabernak direla esango genuke, baina ez da hain erraza tabernekin harremanetan jartzea. Beste aukera batzuk bilatzen ere saiatzen gara. Adibidez, uste dugu maketa-lehiaketak oso aukera onak direla agertoki batera lehenengo aldiz igotzeko.

**Ildo horretan, duela gutxi Algortako jai-batzordeak antolatutako maketa-lehiaketan izan zineten. Zelakoa izan zen esperientzia?** Lagun batek komentatu zigun maketa-lehiaketan parte hartu genezakeela. Esan zigunean, ez genituen abestirik prestatuta. Batxilergoko bigarren mailan gaude eta entsetzeko denbora oso murriztua da. Ordea, saiatu ginen. Enaitzen anaia deitu genuen letrak idazteko, eta pare bat astetan hiru abestiak ateratzea lortu genuen. Oso esperientzia polita izan zen. Beste taldekide batzuekin momentu politak pasatu ditugu eta oso giro ona egotea lortu da. ◀

**Naia Eguskiza eta Iñaki Gaminde** *Erandioztarren euskara liburuak*

# «Mundu-ikuskerak ezberdinek euskara oso aberatsa sortu due Erandion»

**Eguskizak eta Gamindek Erandioko euskarak dituen berezitasunak ikertu eta batzeko lana egin dute, beraiek diotenez, herriko hizkuntzarekiko harrotasun hori berpizteko nonbait.**

**ANDER ZARRAGA ▶**

**I**ñaki Gaminde unibertsitateko irakasle ohiak 1981ean hasi zituen Euskal Herriko hainbat eskualdetako berbak, esamoldeak eta gramatika biltzeko beharrak. Egindako lanen artean azkenetarikoa da, Naia Eguskiza bere ikasle izandakoagaz egin duena. Elkarregaz Erandioko berbak eta gramatika bildu dituzte. Lan horren emaitza liburu bitan batu dute: *Erandioztarren euskara I Hiztegia* eta *II Gramatika*. Batetik, berbak lau gaitan banatzen dituen «lexikoide» bat egin dute, Gaminderen hitzetan, «formatu horretan pentsetan izendu erreza irakur litekeela», eta, bestetik, soinuakaz eta morfologiagaz lotutako Erandioko hainbat formak batu dituzte.

Erandioko euskara oso aberatsa dela azpimarratu du Gamindek, «herriak izaera mistoa izan dabelako: fabrikak eta baserriak alkarren ondoan zeuden. Horregatik, hemen garatu den mundu-ikuskerak, bizimoduak, hizkuntzari asko eragin deusko». Era berean, Eguskizak nabarmendu du inguruko berberan «badinot» edo «inor» bezalako berbetan «n» hori bereziki markatzen dela.

Ikerketa egiteko 1912-1970 urteen bitartean jaiotako 46 pertsona ingururen ekar-



**Naia Eguskiza unibertsitateko irakaslea da gaur egun EHU-n. HODEI TORRES**

*Sakoilu, ube, gareztiko, ilen, firu edo paraje bezalako Erandioko berbak batu dituzte ikerketan. Hitz guztiak jaso dituen liburua eta gramatika liburua Erandioko Udalaren Euskara Zerbitzuko webgunean aurkitu daitezke.*

penak jaso dituzte. Informanteak deritzoten horiek euskara familiarik jaso izan dutelako aukeratu dituzte. Besteak beste, 1912an jaiotzen Dionisia Aresti eta baita bere alaba ere elkarriketatu zuela gogoratu du Gamindek. «Lanok egiteko, informanteak sailkatzen doguz erabilera linguistikoaren arabera, metodo matematikoen bidez. Guk metodo kuantitiboak erabiltzen doguz», azaldu du irakasle ohiak prozesua azaltzeko.

Tamalez, ikerketarako ez dituzte gura beste informante aurkitu: «Guk lagunen bitartez kontaktatu dogu beraiekaz, badakigu egon badaudela, baina baserri asko desagertu diranez eta jendea orain pisuetan eta bizi denez, ez doguz asko aurkitu, gehienak Arriaga auzotik gorakoak izan dire». ◀



**ARANTZA  
ETXEBARRIA**  
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra  
Ortodontzia

Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

*Iñaki Bitxitegia*



*Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala*

Villamonte plaza 3 94 430 23 45 Algorta Telletxe 1 94 460 27 41



**Aritz Lasa** Dantzaria

# «Dantza garaikideak gero eta gorputz anitzagoak hartzen ditu barnean»

**Marée-Basse-Itsasbehera proiektuaren estreinaldian parte-hartu zuen Aritz Lasa dantzariak maiatzaren 27an. Hala, beragaz elkartu gara bere ibilbide profesionala ezagutzeko asmoz.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

**Zer da dantza zuretzako?** Nire gorputza mugitzeko modu bat izateaz gain, nire burua toki batean edota momentu batean kokatzeko era bat da ere. Beraz, mundua ikusteko era ezberdin bat dela esango nuke. Dantzak erakutsi dit agertoki edota estudio batean egoten, baita ulertzen ere jendeak zelan adierazten dituen emozio ezberdinak bere keinuen bidez. Horrez gain, dantza ideiak adierazteko tresna bat da niretzako, ez soilik oholta gainean, baizik eta nire bizitzako beste alderdi batzuetan ere.

**Duela gutxi, Marée Basse-Itsasbehera obraren estreinaldia egin zenuen piezaren sortzailea den Eric Surmenianen kontrabaxu-joleagaz batera. Zer kontaktzen duzue obran?** Eric Surmenianek Getxoko Kultur Etxeak bulzatutako RK beka irabazi zuen pieza honekin, eta, beranduago, ni proiektura batu nintzen; izan ere, berak proposatu zidan obraren zati batean nire dantzarekin parte-hartzea. Pieza honetan, itsasoaren inguruko hausnarketa egiten dugu: itsasoan eta bertan bizi diren izakiek pairatzen dituzten mehatxuen inguruko pieza dantzatua da, eta, bertan, inprobisazioa, kontrabaxuaren musika eta testua uztartzen ditugu. Hurrengo galderan oinarritzen da obra osoa: «Zer utziko diegu gure haurrei 30 urte barru?».

**Nolakoa izan da Eric Surmenianegaz lan egitea?** Nahiz eta Eric den piezaren sortzailea, obra oso nirea ere sentitzen dut, izan ere, bere unibertsoaren barruan nire dantza nahi dudan moduan adierazteko askatasuna izan dut, emanaldia nire ekarpenekin ere eraikiz. Horregatik, oso esperientzia polita izan da. Egia da ez dugula batera lan egiteko denbora askorik izan ni orain arte Valentzian eta Madrilen ibili naizelako lanean. Hala ere, errez koordinatu gara eta oso ondo konektatu dugu.



Muxikaberrin izan zen *Marée Basse-Itsasbehera*-ren estreinaldi handia. HO DEI TORRES

## Beldurrik handiena

**«Kanpoko iritzien beldurra izaten dut. Bestalde, askotan pentsatzen dut noiz arte aguantatuko dudan dantzaz bizitzen. Izan ere, lan honek asko erretzen zaitu, beti proiektuen atzetik ibili behar zarelako, baita bekak bilatzen ere. Askotan lan gehiago ematen dizu lan-bilaketaren kudeaketa horrek, lanak berak baino»**

**Zein izan da momentu honetara arte zure ibilbide profesionalan eduki duzun erronkarik handiena?** Lan duin bat aurkitzea da erronkarik handiena. Eta oraindik ere horretan nabil lanean. Dantzariok, beharbada, erreferente moduan ditugu Alemania edota Suitza bezalako herrialdeak, bertako artistek lan-baldintza onetan egiten dutelako lan. Momentu honetan, Madrilgo kontserbatorioan ikasten nago, eta, nahiz eta hiri handia izan eta jende gehiago bizi, ez dut uste bertan Euskal Herrian baino aukera gehiagorik dauden. Madrilen, hemen bezala, oso proiektu txikietan aritzea da errazena.

**Dantzaria izanda, ohituta zaude ispiluaren aurrean egotera uneoro zure irudia begiratzen. Dantza munduan sentitzen duzu itxura fisikoarekiko presioa dagoela?** Ez dut presio berezik sentitu, baina egia da nire gorputza edertasun kanonen barruan sartzen dela. Oroitzen naiz gaztetan nire altuerarekiko iruzkinak egiten zizkidatela, ez naizelako bereziki altua eta dantza klasikoan garrantzia ematen diotelako altuerari. Baina, horretaz aparte, ez dut bestelako presiorik sentitu. Zentzu horretan, uste dut dantza garaikideak gero eta gorputz anitzagoak hartzen dituela barnean. Klasikoaren kasuan, dantzarien fisikoari dagokionez, iruditegia zurrunagoa dela uste dut. ◀

Aurten,  
Erandioko autoeskoletan

# GIDABAIMENA EUSKARAZ

ateratzen baduzu,

**100 €**ko

dirulaguntza  
jasoko duzu.

Gainera, azterketa teorikoa euskaraz  
egiten duten herriko ikasleen artean  
100 euroko erregai-txartel bat  
tertiatuko dugu.

ERREGAI-TXARTELA  
**100 €**



## INFORMAZIO GEHIAGO:

Zure autoeskoletan  
edo Erandioko Udaleko  
Euskara Zerbitzuan.

94 489 01 28

euskara@erandio.eus



¡Animato a aprender Euskara!  
Take a chance and learn Euskara!  
R'hasitez proie, aprentze Euskara!  
تشجيع تعلم اللغة العيسكية  
EUSKARA: 100€-1  
EUSKARA: 100€-1

## UDAko IKASTAROAK CURSOS DE VERANO

tu primer contacto con el euskera \*

# IKASTASI

del 26 de junio al 7 de julio  
(taller de 20 horas)  
de 9:00 a 11:00 horas

- Si has venido de fuera de Euskadi, y eres mayor de 16 años.
- Si resides en Erandio, tienes más de 50 años y has tenido poco contacto con el euskera.
- Si quieres conocer la sociedad vasca y dar los primeros pasos en el aprendizaje del euskera.
- Si quieres conocer a gente como tú.

Precio: 5,00 €

A2 B1 B2 C1

prestatzeko IKASTAROAK \*  
40 ordukoak

Prezioa:  
46,40 €

Ekainaren 26tik uztailaren 7ra

09:00etatik 13:00etara

Izena emateko azken eguna:  
Ultimo día de inscripción:

EKAINAK 22 JUNIO

944 676 075 - euskaltegia@erandio.eus  
Desanexio kalea 4, 3.a (Bekoa gizarte etxea)  
ALTZAGA



ERANDIOKO UDAL EUSKALTEGIA  
1985  
2023

UDALAK diruz lagundua



\*  
gutxienez 4 pertsona taldeko  
mínimo 4 personas por grupo

**E!**  
Erandio  
UDALA  
AYUNTAMIENTO







# Ansonekoa (1)

**G**ure amamak, **bat edo batek** indar handia zuela adierazteko, Ansonekoaren indarra zeukala esaten zuten. Euskal 'Herkules'i buruz ari zen amama konparazio hartan, baina Ansonekoa goitzeneko Herkules hura ez zen izaki mitologikoa, hezur-haragizkoa baizik.

Juan Bautista Artaza Iraolaga zuen izena, eta Urdulizko Ansonerri baserrian etorri zen mundura (hortik Ansonekoa deiturarena) 1812ko maiatzaren 22ko goizaldean, Altxoko Handia baino 6 urte lehenago, hain zuzen ere.

Hamabost urte zuenerako gorputz itzela zeukan; bai eta harrigarriko indarra ere! Gaztetatik burutu zituen **egitandiak** laster hedatu ziren inguru zabalean.

Esaterako, behin Urdulizko **errotari** batek 20 **kintaleko upa** bat lekualdatu behar izan zuen. Hainbat auzokoren artean ere ez ziren gauza izan upa mugitzeko; ezta zentimetro bat bera ere! Baten bati Ansonekoari deitzea otu zitzaion. Gure morroskoa burdinazko barra bi hartuta agertu zen, eta erraztasun handiz errotariak adierazi zion tokira eramanez upela berak bakarrik.

Horra beste jazoera bat. Antzekuazpi **estratan** bide paralelo bi zeuden, bata **galtzada** eta bestea gurdibidea. **Gurdibidea** estua zen, eta gurdiek banan-banan igaro beharra zuten. Estratan aurrenik sartzen zen **itzainak** zuen lehentasuna gurdibidetik igarotzeko, atzetik zetozenek sarreran itxaroten zuten bitartean. Egun batean, Ansonekoa lehenik heldu zen estrataren hasierara gurdi bete egurrarekin. Abiatu zen, ba, gurdibidean aurrera. Laster beste orgari batzuk ailegatu ziren eta, Ansonekoari adarra jotze aldera, pasatzen utzi behar ziela esan zioten urduliztarrari. Orduan, Ansonekoak, patxada handiz, bere gurdiari atzeko aldetik heldu eta airean altxatuta, alboko galtzadara baztertu zuen, gurdibidea libre utzita. Beste orgazainak **zurtz eginda** lotu ziren; are gehiago ikusi zutenean eurak igarota ostean Ansonekoak berriro ekarri zuela bere gurdia gurdibidera, indar eta abilezia handiz eta **arte** galdu barik. Azkenean, Ansonekoa zoriondu beste erremediorik ez zuten izan, balentria hura ikusita! Urdulizko indartsua, berriz, bere lurrezko pipa isiotu, eta aurrera joan zen bidean, zupada eta zupada artean, pozezko **zantzoak** eginez.

Ansonekoaren egitanda pare bat baino ez dugu **kontatzen izan** hemen, espazio faltagatik. Gehiago eta hobekiago ditugu hurrengo aleetarako. Halandaze, ez galdu oraindikarren pantaila handira (harrigarriro) salto egin ez duen euskal super-heroi honen hurrengo atala! ◀



## Berba azoka

### *Bat edo bat*

Inor, norbait, baten bat.

### *Egitandi*

Balentria, ekitza gogoangarria.

### *Errotari*

Errota baten ardura duen pertsona, edo errotan lan egirik bizibidea ateratzen duena.

### *Kintal*

Pisu neurria, gaur egun ehun kilogramoren baliokidea.

### *Upa*

Upela.

### *Estrata*

Bide meharra.

### *Galtzada*

Harbidea, harrizko bidea.

### *Gurdibide*

Gurdiak ibiltzen diren bidea.

### *Itzain*

Hemen, gurdiak gidatzen dituen pertsona, orgaria, orgazaina.

### *Zurtz egin*

harritu, zur eta lur geratu, harri eta belarri gelditu.

### *Arte*

Hemen, sosegua, patxada, eroapena.

### *Zantzo*

Irrintzia, lekaioa, oihua, zinka, ihuria.

### *Kontatzen izan*

Kontatu, kontatu izan (gure eskualdeko aditz joko berezia).

Alberto Romillo Kick boxing-eko entrenatzailea

# «Dudan maila lehiatzeko egokia dela ikusi dut»

**Alberto Romillok bere entrenatzaile papera lehiakide izateagaz uztartu du aurten: Espainiako Kick Boxing Txapelketan lehiatu da, eta, espero ez zuen arren, etxera bueltatu da bi urrezko dominagaz.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

**Aurten teknikari gisa parte hartetik lehiakide bezala parte hartzera pasatu zara Espainiako Kick Boxing Txapelketan. Nolako izan da beste aldean egotea?** Asko gustatu zait lehiakide bezala aritzea, urte asko pasatu direlako azkenekoz lehiatzen aritu nintzenetik. Orain arte, teknikari gisa parte hartu dut eta nire lana entrenatzen duen jendea prestatzea izan da, baita lehiakideak txapelketetarako gidatzea ere. Baina lehiakide gisa parte hartzea oso desberdina da: ikasleak pixka bat ahaztu behar dituzu, alde batera utzi, eta berekoi samarra izan. Lehiakideak bere garapenari begiratu behar dio; orduan, txapelketa batean nagoenean, besteak ahazten ditut, eta ezin naiz haien atzean egon. Lehiatzeko, entrenamenduetan eta txapelketetan gutziz zentratu behar zara.

**Txapelketan bi urrezko domina irabazi dituzu. Nola sentitzen zara?** Ez nuen espero. Ez nekien zegaz egingo nuen topo, baina, hala ere, ni edo zertarako prest joan nintzen. Urte asko ziren



Romillok bere akademia propioa ireki gura du Gorlizen. IKER RINCON MORENO

## Entrenatzaile ala lehiakide?

**«Nahiz eta badakidan lehiatzeak iraungitze data bat duen, entrenamenduak jasotzearen edota ematearen artean, entrenamenduak jasotzeagaz geldituko nintzateke. Izan ere, hori da gehien disfrutatzen dudan gauza»**

lehiatzen ez nintzela, zirkuitutik kanpo egon naiz aspalditik eta ez da gauza bera txapelketa ikustea edota barruan egotea. Baina behin barruan egonda, eroso sentitu nintzen eta dudan maila lehiatzeko egokia dela ikusi dut.

**Orain, lehiatzen jarraitzeko asmoa duzu?** Urrezko domina bat irabazten duzunean Selektzio Nazionalean sar zaitezke eta Munduko Txapelketara joan, eta, momentu hauetan, ideia hori ez zait burugabea iruditzen. Ekaineko lehen astean kontzentrazio bat izan nuen, eta, bertan, azkenean, hautatzen banaute, Lisboan (Portugal) izango den hurrengo Munduko Txapelketara joatea espero dut. Sinestezina da niretzako, izan ere, lehiatzen ez egotetik denboraldia Munduko Txapelketan amaitzera alde handia dago. ◀



**KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ**

**BETIKO IKASTOLA**

www.betikoikastola.eus  
Ardatza auzoa, 64. (48940) Leioa  
info@betikoikastola.eus  
94.464.23.68

**KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA**

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onari.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herriarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak.
- Konfiantzaren pedagogia. EKI, KIVA.
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

  
IkastolenKortea



**Eunate Etxebarria** Europako Kopako txapelduna junior mailan

# «Judo egiten disfrutatzen nabil berriro»

**Lau urte zituenetik judoan murgilduta dabil Eunate Etxebarria getxoztarra. Dioenez, denbora luzez lehiatu barik egon ostean, aurten bueltatu da txapelketen mundura, eta ezin baino hobeto hasi du urtea.**

**IKER RINCON MORENO ▶**

**N**eba-arrebak judoan ari zirelako hasi zen Eunate Etxebarria getxoztarra borroka-kirol honetan. Txikia zene-tik egin zitzaion erakargarri judoa, eta aitortzen duenez, haiek ikustera joaten zen bakoitzean bere txanda noiz izango zen galdetzen hasi zen. Hala, lau urte zituela, judogia jantzi eta tatamira igo zen; ordu-tik ez da jaitsi. «Judoa nire bizitzaren parte da; lau urtetatik daramat murgilduta eta, egia esan, ez dakit zer den judoa egin gabe bizitzea, beti presente izan baitut».

Estatu mailan askotariko lehiaketetan parte hartu du, eta, orain, «denbora asko lehiatu gabe egon ostean», txapelketen mundura egin du txonbo aurten getxoztarrak. Ezin baino hobeto hasi du ibilbidea: Espainiako Txapelketa, Espainiako Superkopa... eta Europako Kopa azkena. Horietan guztietan dominaren bategaz bueltatu da etxera, urrezkoagaz gainera nazioarteko azken hitzordu horretan. «Azken hau, Europakoa, nire urte-



Urte osoan esperotako nazioarteko domina janztea lortu du orain gutxi. HO DEI TORRES

## Erronkak

**«Madrilgo Europako Openean arituko naiz eta ekaineko azken astean Krakoviara (Polonia) egingo dut bidaia Espainiako taldearekin borrokatzeko Europako Senior Txapelketan»**

ko txapelketarik onena izan dela uste dut», aitortzen du.

Sasoi betean dago Etxebarria, hala ere, bidea erreza ez dela dio. «Egia da espero ez nuen momentu batean iritsi zaidala hau guztia niri, eta aurten gauza asko bigarren plano batean utzi behar izan ditut kirol erritmo hau jarraitu ahal izateko». Bere bizitzako gauza askoren gainetik kokatu du judoa orain, «hori izan da zailena; itsu-itsuan arriskatu dut guztia aurrera egiten saiatzeko». Bide luzea du oraindino bere egiteko. ◀



## UDAKO IKASTARO TRINKOAK eta BARNETEGIAK

Matrikula epea: ekainean eta uztailean.  
23/24 IKASTURTERAKO AURREMARIKULA ZABALIK!  
Informazio gehiago nahi baduzu:  
Leioa: 944 64 60 63 | lamia@aek.eus  
Getxo: 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus  
Plentzia: 946 77 36 07 | jentilbaso@aek.eus  
Gorliz: 946 77 36 46 | jentilbaso@aek.eus

☎ 688 746 776  
www.facebook.com/UribeKostako-AEK  
www.aek.eus/blogak/uribekosta/  
www.aek.eus



## Poliziarekin euskaraz

**IÑIGO ASTIZ** *Berria*-ko kazetaria



**B**egiak ireki zitzaizkion. Herbehereetako irratiko kazetaria zen, eta literatur kontu batzuen harira etorri zen Euskal Herrira 2016an. Euskal gatazkaren nondik norakoez erreportaje bat egiteko baliatu nahi izan zuen aukera, halere, eta han jarri gintuen hiru idazle gaiari buruz hizketan. Aritu ginen frankismoaren itzal luzeaz, ETAz, atentatuez, presoez eta bestez, baina tonu larriko kontakizun hartan, guri ia oharkabean joan zitzaigun detaile batek deitu zuen haren arreta. «Benetan ez zeniokete polizia bati euskaraz egingo?». Ezetz nik, eta ezetz besteek. Behin, bereziki indartsu sentitzen nintzen batean, ausartu nintzela kontrol batean Guardia Zibil bati «arratsaldeon» esaten, eta bereziki kikilduta amaitu nuela, agur horregatik bakarrik jasotako tratuagatik. Harritu egin zen, eta haren harridurak harritu ninduen ni.

«Ertzainekin ere ez?», galdetu zuen orduan. Eta zalantza gehiagorekin baina ezetz denok berriz ere. Eta harrituta bera berriz ere.

Iruditu zitzaidan gizarte justuago baten aukera erakusten zuela haren keinuak, eta maiz gogoratu naiz harekin. Zer esanik ez, auzitegiek, Erandion, udaltzain izateko euskara jakin beharrik ez dagoela ebatzi zutenean.

## Berandu baino lehen

**IRATXE MARTA** AEK-ko irakaslea



**B**iziraupena ziurtatzeko garai berrietara moldatzea garrantzitsua da; era berean, hizkuntza batek biziraun nahi badu, komunikazio bide berrietara egokitu behar da. 1990ean Euskal Herriko umeen % 78k euskaraz ikusten zituen marrazki bizidunak. Gaur, % 0,2k baino ez ditu euskaraz ikusten. Zer dago datu horren atzean? Zein da arazoa? Hizkuntza ala telebista?

Urteotan, erabat aldatu da gure informazioa jasotzeko bidea; telebistako albistegiak sega-potoko pantailan eta plataformetan ikusten ditugu, eta horietan eman den garapena izugarria izan da. Pantaila horiek gu liluratzen gaituzten lez, liluratzen dituzte geure umeak. Izan ere, marrazki bizidunez gain, Internetek eskaintzen dizkien aukerak amaigabeak eta oso erakargarriak dira. Batetik, sare sozialetatik zabaltzen diren edukiak: «youtuberrak», «tiktokerrak»... Bestetik, «streaming» plataformenak: Netflix, HBO... Gure etxeetan sartu dira, baina hizkuntza arrotzean ia beti.

Euskal mundutik plataforma digital berrietarako ekarpena oso txikia da, askotan presentziarik gabekoa. Hala ere, argi izan behar dugu gure umeek euskara kontsumitzeko biderik zuzenena dela; eta ezin dugu ukatu euskarak atzoko behar zuela beste hizkuntz askoren presentzia parekatzeko inbertsioa.

## Horoskopoa



**Ura**  
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Aseezina zara. Txangoz txango aritu zara ikasturte osoa eta daborduko udako oporretan pentsatzen zabilta...



**Otsoa**  
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Diru kontuengatik eztabaidaren bat edo beste izango duzu laster. Abisatuta zaudenez, ahalegindu zaitez dakizun hori konpontzen.



**Adarra**  
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Hilabete biribila duzu aurretik. Osasuntsu sentituko zara, umorez ezin hobeto, amodio kontuetan zoragari eta diru kontuetan bikain.



**Aitzurra**  
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Umore txar horrek ondorio larria ekar diezazuke epe laburrera. Pazientzia galtzen hasia da bat baino gehiago.



**Hostoa**  
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Ez zaitez kezkatu. Azkenaldian lagun horregaz izandako arazoak berez konponduko dira, izan pazientzia.



**Eguzkia**  
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Orain gutxi entzun dituzun hitz gozo eta polit horiek ez itzazu beste ezerezegaz nahastu, ez da amodiozko deklarazioa izan.



**Garia**  
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Ez duzu uste kapritxoetan diru larregi gastatzen duzula? Hil amaieran gero estu eta larri ibiliko zara... Estutu patrika!



**Lastoa**  
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Arazoak berba eginez konpontzen dira, gehienak bai, behintzat. Eman ezazu lehen pausoa, merezi du-eta, eta badakizu.



**Iratzea**  
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Look aldaketa hori zein ondo etorri zaizun, ezta? Ingurukoek igarri dute alde, baina bereziki ezkutuan dagoen pertsona batek igarri du.



**Meta**  
(Irailak 17-Urriak 16)

Luzaroan ezer ez eta bat-batean hiru lagunek azaldu dizkizute euren sentimenduak, eta ez edonolakoak gainera!



**Hazia**  
(Urriak 17-Azaroak 15)

Lasai motel, oraingoa ez da zure sasoirik onena, baina maite zaituztenak ez dira horren errudunak, eta ez dute zure jarrera hori merezi.



**Negua**  
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Benetan, kirola egiten hasi beharko zenuke; giharrak gogortuta dituzu, eta zer esanik ez hezurrak! Has zaitez ibiltzen, suabe-suabe.



Aurten,  
Getxoko autoeskoletan



GIDABAIMENA

# EUSKARAZ

ateratzen baduzu,

**100 €** ko

dirulaguntza  
jasoko duzu.

Gainera, azterketa teorikoa euskaraz  
egiten duten herriko ikasleen artean  
**100 euroko 3 erregai-txartel**  
zozkatuko ditugu.



## Erraza da!

Hementxe dituzu benetako testak,  
sartu eta  
egin proba!



### INFORMAZIO GEHIAGO:

Zure autoeskolan  
edo Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuan.  
94 466 00 10  
euskara.zerbitzua@getxo.eus  
www.getxo.eus/euskara




# Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:




AURREKO  
SOLUZIOAK



**Leiho** garbitzen

Kolorezta ezazu marrazkia






## Denboraren dominoa

Bete itzazu hutsuneak, domino zati honek zentzua izan dezan.

## Handienetik txikienera

Ordena itzazu komuneko paperak handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 8.



## Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta gure lagunek zer dioten asmatuko duzu.



# Nola bizi dituzue udako jaiak?



**DANIEL ARROYO**  
ALGORTA

Txandaka lan egiten dudanez Bilbon, niretzako zaila da gehienetan jaietara joatea. Hala ere, aurten joatea gustatuko litzaidake, izan ere, lagunekin elkartzeko aukera ezin hobea da. Haiekin lotzea eta kalimotxo batzuk edatea dira jaietatik gehien gustuko ditudan gauzak, kar-kar-kar.



**PAULA BREZO**  
ROMO

Jaietatik gehien gustuko dudana kontzertuak dira. Gainera, aspalitik ikusten ez dituzun pertsonak ikusten dituzu, eta giroa izugarria da. Lamiakoko jaiak niretzako itzelak dira, beti joaten naiz. Bestalde, kuadrillan guretzako ohitura da urtero Leioako jaietara joatea San Juan Eguna ospatzera.



**JULIA MARIA HIERRO**  
ALGORTA

Aurten ekintza gutxitan parte hartuko dut, izan ere, ez naiz ondo sentitzen jende asko dagoen lekuetan. Kontzertuak, adibidez, ez ditut batera gustuko. Hala ere, ez dut kale egingo Paelletara; urtero joaten naiz. Egun horretan antolatzen dituzten kantu-poteoa eta erromeriak oso gustuko ditut.



**ARRATE ENA**  
GETXO

Gogo handiak ditut Portu Zaharreko jaietara joateko. Bertan, lagunekin egotea da niretzako garrantzitsuena, modu horretan, gure bizitzak egunean jartzen ditugulako. Izan ere, askotan hilabeteak daramatzagu elkar ikusi gabe eta jaiak aitzakia ona dira batera denbora pasatzeko.



**OLAIA PARDO**  
ERANDIO

Egia esan, lagunekin egotea eta edatea da jaietatik gehien gustatzen zaidana. Dantza egitea eta horrelakoak ere gustatzen zaizkit, baina normalean gurera goaz, ez dugu egiten diren gauzetan parte hartzen. Niri gehien gustatzen zaizkidan jaiak Bilbokoak dira, zalan-tza barik.



**ITXASO REGADAS**  
ALGORTA

Niri txosna-inguruan egotea da gehien gustatzen zaidana, ahal dudan guztietan horra noa: giroa, kontzertuak, jende ezaguna ikustea... Lagunok ez dugu kuadrilletarako egiten diren ekintzetan parte hartu ohi, nahiago dugu libreki joatea, goizetik parranda hasi eta gorputzak nahikoa dela esan arte.

<b>MALAK B2/C1</b> HABEren malak egiaztatzeko ikastaroak	
<b>UZTAILA</b> Hasi ekainaren 28an Amaitu uztailaren 21ean Ordutegia: 8:00-13:30	<b>99,00 €</b> HABEK eluzteko gaitasuna <b>HABE</b>
Aurrematrikula datak: ekainaren 12tik 22ra (aurrematrikula egiten denean 20€ aurreratutako behar dira)	
<b>MASTITXU EUSKALTEGIA</b> Iparragirre etorbidea, 78 48940 - LEIOA	euskaltegi@leioa.eus euskaltegileioa.com <b>1 94 464 00 02</b>



# hirukalagunen txokoa

# Sari ederrak eskura!

Zozketa

## ***Itsasoko doinuak, sarrerak***

Uztailaren 7an, barikuan, itsasoa ardatz nagusi duen kontzertua hartuko du Muxikebarrik. Saioa 19:30ean hasiko da; sarrera bikoitzak ditugu zure zain.



Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainak 28a (eguztzena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.

Zozketa

## ***Axularren gerizpean liburua***

Pamiela argitaletxearen eskumenez, Jeoa Altonagaren eleberrri eder hau zozkatuko dugu gure irakurle guztien artean. Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainak 28a (eguztzena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



Zozketa

## ***Ilusioaren indarra liburua***

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 6 eta 8 urte arteko umeentzako liburu-ilustratu eder hau zozkatuko dugu gure irakurleen artean. Halako bat zuretzat izatea gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainak 28a (eguztzena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa [HIRUKA.eus](http://HIRUKA.eus) webgunean.



## **Zelan egin HIRUKAlagun?**

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)

**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)

**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



# KAISHOP!

Erosi euskaraz Getxon

## Asko balio du!



Kalitatea



Bertoko hizkuntza



Bertoko dendak eta tabernak



Burdinola taberna



Toymaniac



Honolulu Vintage



La Granja Selección



Mancia Expert Cordevi



Alpha Entrenamendu Funtzionala

